

# HIZKUNTZA

Oihana ZABALETA JUANTORENA

MUNDUKO IPUINAK ETA  
EMOZIOEN MUNDUA  
LEHEN HEZKUNTZAN

TFG/*GBL* 2019

upna

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

*Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua*



# Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Gradu Bukaerako Lana

**MUNDUKO IPUINAK ETA EMOZIOEN MUNDUA  
LEHEN HEZKUNTZAN**

Oihana ZABALETA JUANTORENA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA  
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**

Oihana ZABALETA JUANTORENA

**Izenburua / Título**

Munduko ipuinak eta emozioen mundua Lehen Hezkuntzan

**Gradu / Grado**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**

Juan Karlos LOPEZ-MUGARTZA IRIARTE

**Saila / Departamento**

Giza eta Hezkuntza Zientzien Saila – Departamento de Ciencias Humanas y de la Educación.

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2018/2019

**Seihilekoa / Semestre**

Udaberria / Primavera

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27-ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikokoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta disziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakutsi dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak bidea eman digu haurren emozioen mundua hobeto ulertzeko. Jakintza psikologiko, soziologiko eta pedagogikoak guztiz beharrezkoak gertatu zaizkit lan honen esparruak (irakasle, ikasle eta gurasoena) definitzeko unean. *Gizartea, Familia eta Eskola Inklusiboa* irakasgaia izan da honen inguruko informazio asko eman didana eta hezkuntzaren munduan lan egiterakoan lagungarri izanen diren datuak eskaini dituena.

Didaktika eta diziplinako moduluak bidea eman digu curriculumak, helburuak, edukiak eta gaitasunak zehazteko. *Hizkuntzaren Didaktika I* eta *II* ikasgaiak ezinbestekoak gertatu zaizkit lanaren esparru teorikoa definitzeko eta *Haur Literatura* ikasgaiaren ikasitakoa, arlo praktikoan proposatzen ildoak ezartzeko..

Halaber, Practicum moduluak bidea eman digu Gradu Bukaerako Lan honen alde praktikoan aipatzen diren proposamenak errealitateak hurbil egon daitezten. Praktiketara izan ditudan esperientziak, gehi nire ibilbide profesionalari loturik daudenak, ezin garrantzitsuagoak izan dira lan honen jarduerak egingarriak izanen direla ziurtatzeko.

Azkenik, aukerako moduluak bidea eman dit lan honetan zehar aipatzen diren egoerak globaltasunetik berezitasunera iristeko. *Adierazpen Mugimendua, Dantza eta Erritmoa* izan da eta Proposamenak zehaztuz eta arreta zenbait egoera konkretuetan jarritz.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, bi elean idatziko dira lanaren "Sarrera" eta "Ondorioak" atalak.

## Laburpena

Gradu Bukaerako Lan hau Literatura Lehen Hezkuntzan gaiari buruzko lana da. Bertan, literaturaren baitan dauden alderdi ezberdinen artean, ipuinak dira oinarri, munduko ipuinak hain zuzen ere, eta Lehen Hezkuntzan oinarritzen da. Ipuinen bidez hezkuntzaren munduan egin daitekeen lana bultzatzea eta indartzea agertu nahi da. Horretarako bi espazio erabiliko dira: Unibertsitatea eta ikastetxea. Lehenengoan irakasle, bai ikasle eta baita gurasoekin egin beharreko lana agertzen da, baloreen eta sentipenen inguruko heziketan lan on bat egin dadin. Honek guztiak familietan, ikastetxeetan eta oro har gizartearen duen eragina ikus daiteke, eta ikastetxe batzuetan ipuinekin zer lan egiten den ere ikusiko dugu. Honek guztiak duen eragina oso handia delako eta bertan hazi eder anitz jartzeak duen onuran guztiz sinisten dudalako murgildu naiz gai eta lan zoragarri honetan.

*Hitz gakoak:* ipuinak; literatura; sentimentuak; eragina; baloreak; Lehen Hezkuntza.

## Resumen

Este Trabajo de Fin de Grado gira en torno a la enseñanza de la Literatura en Educación Primaria. Entre los diferentes aspectos que hay dentro de la literatura, los cuentos son la base; este trabajo se fija concretamente en los cuentos del mundo y su aplicación en Educación Primaria. Se quiere mostrar el fomento y el refuerzo del trabajo que se puede realizar a través de los cuentos en el mundo de la educación. Para ello se utilizarán dos espacios: la Universidad y la Escuela. En el primero, se muestra la labor que se debe llevar a cabo con profesores y profesoras, con estudiantes y con los padres y madres, para trabajar los valores y los sentimientos en la escuela. Se puede ver el efecto que tiene todo ello en las familias, en las escuelas y en general en la sociedad, y también veremos qué trabajo se hace en varias escuelas a través de los cuentos. Nos hemos sumergido en este maravilloso mundo porque la influencia que tiene todo ello es muy importante y porque creemos plenamente en el beneficio de sembrar buenas semillas en este campo.

*Palabras clave:* cuentos; literatura; sentimientos; influencia; valores; Educación Primaria.

## **Abstract**

This Final Degree Project is about Literature in Primary Education. In this work, among the different aspects that exist within the literature, the stories are the basis, specifically the stories of the world, and it is based on Primary Education. It wants to show the promotion and reinforcement of the work that can be done through stories in the world of education. And two spaces will be used for it: the University and the School. In the first, it shows the work to do with the teachers, students and parents, so that a good work can be done regarding the values and feelings. You can see the effect that all of this has on families, in schools and society in general, and we will also see what work is done in several schools through stories. I have entered into this wonderful work because its influence is huge and because I believe fully in the benefit of sowing seeds in this field.

*Keywords:* story; literature; feelings; influence; values; Primary.

## **Résumé**

Ce projet de dernière année s'articule autour de l'enseignement de la littérature dans l'enseignement primaire. Parmi les différents aspects de la littérature, les contes et récits constituent la base; Ce travail est spécifiquement défini dans les histoires du monde et son application dans l'enseignement primaire. Il veut montrer la promotion et le renforcement du travail qui peut être fait à travers des histoires dans le monde de l'éducation. Pour cela, deux espaces seront utilisés: l'université et l'école. Dans la première, il montre le travail qui doit être effectué avec les enseignants, les élèves et les parents pour appliquer les valeurs et les sentiments à l'école. Vous pouvez voir l'effet que tout cela a sur les familles, dans les écoles et dans la société en général, et nous verrons également le travail effectué dans différentes écoles à travers des histoires. Nous nous sommes immergés dans ce monde merveilleux parce que l'influence de tout cela est très importante et parce que nous croyons pleinement au bénéfice de semer de bonnes graines dans ce champ fertile.

*Mots-clefs:* histoires; littérature; sentiments; influence; valeurs; Éducation Primaire.



## **Aurkibidea**

<b>Sarrera</b>	<b>1</b>
<b>1. Helburuak</b>	<b>9</b>
<b>2. Curriculum</b>	<b>23</b>
<b>3. Esparru Teorikoa</b>	<b>27</b>
3.1. Ipuin motak: munduko ipuinak	27
3.1.1. Europako ipuinak	28
3.1.1.1. Zeltiar ipuinak	28
3.1.1.2. Euskal ipuinak	28
3.1.1.3. Greziako ipuinak	29
3.1.2. Afrikako ipuinak	29
3.1.3. Ozeaniako ipuinak	29
3.1.4. Amerikako ipuinak	29
3.1.5. Asiako ipuinak	30
3.2. Baloreak, sentimenduak eta emozioak	30
3.2.1. Maitasuna	31
3.2.2. Autoestimua	31
3.2.3. Erruduntasuna	31
3.2.4. Haserrea	32
3.2.5. Enpatia	32
3.2.6. Dolua	32
3.2.7. Tristura	33
3.2.8. Barkamena	33
3.2.9. Zoriontasuna	33
3.2.10. Beldurra	34

3.2.11. Aniztasuna, onarpena	34
3.2.12. Berdintasuna	34
3.2.13. Ekintzen ondorioak	35
3.2.14. Bakea	35
3.2.15. Harrokeria	35
3.2.16. Naturarekiko errespetua	36
3.2.17. Lehiakortasuna	36
3.2.18. Gezurrak	36
3.2.19. Dibortzio edo banaketak	37
3.2.20. Bakardadea	37
3.2.21. Bihurrikeriak	37
3.2.22. Gorrotoa	37
3.2.23. Adopzioa	38
3.2.24. Hezkidetza	38
3.2.25. Gurasoekiko harremanak	38
3.2.26. Irudimena, fantasia	39
3.2.27. Lo egitea	39
3.2.28. Lotsa	40
<b>4. Esparru praktikoa</b>	<b>41</b>
4.1. Unibertsitatea	42
4.2. Ikastetxea: irakasleak, ikasleak eta gurasoak	49
4.3. Ebaluaketa	57
4.4. Ikastetxe ezberdinei buruzko datuak	57
4.4.1. "A" eta "D" ereduko ikastetxeak	58
4.4.2. Landa eremuko eta hiriko ikastetxeak	58

**ONDORIOAK ETA EZTABAIDA IREKIAK**

**ERREFERENTZIAK**

**ERANSKINAK**



## SARRERA

Ipuinak eta emozioak uztartzearen ideia, gaur egungo hurrek emozio, sentimendu eta baloreen inguruan duten ezagutza eza eta heziketa mota honen beharra dela eta sortu zait. Lehenik eta behin, literaturaren mundu aberatsaren baitan dauden ipuinen bidez, emozio, sentimendu eta baloreak ezagutzea eta behin ezagutu ondoren, euren garapen eta oreka emozionalean guztiz lagungarri izatea ezin beharrezkoagoa dela deritzot. Azken finean, eurek eragin zuzena dute eta izango dute gizarte honen edo beste gizarte batzuen geroan, eta maistra izateko ikasten ari naizen bide honetan eta lan honek duen arduraren oinarrituz, hurrei alderdi hau eskaintzea ezinbestekoa iruditzen zait.

Bestetik, eta soilik hurren lana ez delakoan, gai hau aukeratzearen beste arrazoi bat bat hau da: prestakuntza eta lanketaren aldetik, Unibertsitate mailan egin daitekeena eta baita ikastetxeetan irakasle eta gurasoekin egin daitekeena ere. Alor honetan anitz dago egiteke, ziur naiz oraindik ate asko eta asko irekiko direla eta une zoragarri asko izanen direla aurrerantzean.

Hau dela eta, literatura eta Lehen Hezkuntza bezalako eremu batean sartzerakoan aipatu beharra dago mundu zabala dela. Zehazki haur literatura zer den eta zertan oinarritzen den azaltzeko, oinarritzko bi funtzio bete beharko dira haur literatura dela esateko: biltzailea eta bereizlea izatea. Batetik, bertan tebeoak, zinema, hitz jokoak, aho-korapiloak, asmakizunak, esaerak, kantak, ea... daude eta bestetik, definizioak biltzen duen guztia literatura dela bermatzea (Cervera, 1992).

Aldiz jatorriari erreparatuz gero, haur literaturak literatura edo pedagogia izan behar duen eztabaida sakona izan da betidanik. Aipatu XX. mendean, 2. mundu gerraren ondotik hezitzaileak haur liburuari benetan zeukan garrantzia emateko eskatzen hasi zirela eta honi lotuta, Haur Literaturan sailkapen hau egin zen: literatura instrumentalizatua (eskolarako), literatura irabazia (herri ipuinak, Charles Perraultenak eta "Mila gau eta gau bat gehiago" ipuinen egokitzapenak adibidez, kantu zaharrak, jostetarako koplak,...) eta haurrentako sortutako literatura (ipuinak edo eleberriak, poemak edo antzezlanak).

Zubizarretak (2002) dioenez, tradizio ipuinei dagokienez, aipatu ipuin folkloriko edo tradizionalak herri eta kultura orotan ezagunak dira, belaunaldiz belaunaldi ahoz igorriak. Asko eta asko idatziz bilduak izan dira, batez ere erromantizismo garaian, eta lehenago ere bai batzuen batzuk.

Mundu mailako bildumak erreparatuz gero, horien artean dago *Pantchatantra*, Indiako ipuin bilduma nagusia, bost liburutan banatua. Ipuinen ondoan, apologoak, moralejak eta beste testu batzuk ere badatoz. Bestetik arabiarren itzulpenak daude; Bizantzioko kulturak ere egin zuen hedatze lanik, eta Ekialdera budismoak eraman zuen batez ere. Beste bilduma bat *Mila gau eta bat gehiago* dugu, arabiarren bilduma nagusia. Hortaz, hasiera batean, Haur Literaturaren adierazpen batzuk jokoari eta bestari loturik zeuden, hala nola, herri poesia eta antzerkia eta ahozko literatura didaktikoa baino gehiago denbora pasa zen (cf. Casares, 2018).

Honi jarraituz, ipuina, poesiarekin batera, literatur genero zaharrena izango da ziur asko; hala ere, literatura kultuan oso berandu gauzatu da era autonomoan (Zubizarreta, 2002).

Honela bada, haur eta gazte literaturaren baitan hiru funtzio ezberdin daude. Gizarte jakin batean literaturaren bidez eskaini eta partekatzen den errealitatearen irudikapen sinbolikora -imajinario kolektibora- haurra hurbildu eta harekin harremanetan jartzea. Bestetik, haurrak bere kulturaren diskurtso literarioa bideratzen den forma narratibo, poetiko eta dramatikoak gero eta gehiago ezagutzea eta baita haurrari munduaren irudikatze edo errepresentazio kulturalki antolatua eskaintzea, belaunaldi berriak sozializatzeko bide gisa (Colomer, 1999).

Hau dela eta, ipuin eta sentipen zein baloreen munduan murgiltzea aukera infinituen eta zabaltasunaren munduan murgiltzea denez, tresna gisara hartuko dira ipuinak Gradu Bukaerako Lan honetan.

Ipuinek milaka gauza ezberdin erakusten dizkigute: sormena eraikitzen, bizitzarekiko balore eta ohitura anitzak ezagutzen, komunikazioa sustatzen... Arrazoi hauengatik, istorioak bidelagun bihurtu daitezke eta eguneroko bizitzan aurrera egiteko erreminta aberasgarri eta erabilgarriak igorri diezazkigukete (Larburu, 2017).

Hauxe da gakoetako bat, Zumaiako *Maria eta Jose Ikastetxe*-ko Larburu psikomotrizistak dioen bezala, ipuinak hurren garapenerako tresnak izatea. Euren garapenean eragin handi bat dute beti ipuinek eta honi guztiari dagokion denbora eta espazioa eskaintzea beharrezkoa da. Hemen badago aurrerago sakonago landuko den ideia bat eta hauxe da, haur bati eskola batean ematen zaion heziketan, oreka aurkitu behar dela alde intelektualaren eta emozionalaren artean.

Gaur egun emozioak lantzeko ipuin zehatzak daude. Ipuin hauekin emozioak lantzea erreza da, besterik ez bada haurrari berak sentitzen duena adierazten laguntzen duelako (Eceiza, 2017). Sentitzeari daukan garrantzia emateak oreka ekarri ohi dio haurrari eta bere garapenean emozioei ere dagokien lekua eskaintzen bazaie, garapena era holistiko batean landuko da, askoz ere aberats eta osatuagoa. Hortaz, Eceizak, *Laskorain Ikastola*-ko Orientatzaileak esan bezala, oso zabala da emozioak lantzeko ipuinen mundua eta honekin lan zuzen bat egingen da hurrekin emozioen inguruan. Hala nola, gaur egun pil-pilean dauden gai eta arazoak lantzeko aukera itzela emanez, esate baterako, dibortzioa, generoa, bullying-a, maitasuna, errespetua, autoestimua, lehiakortasuna, beldurra, tristura, bakardadea, zorientasuna, heriotza, ea...

Horregatik liluratzen du hainbeste haurra fantasiak edo ipuinak. Bere barruan sentitzen duena, bere nahiak, beldurrak, bizipenak, bereziki ulertzen ditu ipuinaren eta fikzioaren bidez. Ipuinak ez dio haurraren buruari, arrazonamenduari soilik hitz egiten, bere bihotzari baizik (Alonso, 2015).

Bestetik, haurrarentzako oso garrantzitsua den beste alderdi bat dago hemen eta hurrengo ideia hau da, ipuina eta haur literatura haurraren eta helduaren arteko lotura afektiboa sendotzeko tresnan bihur daitekeela (Alonso, 2015).

Baina literaturak zer gehiago ematen dio haurrari ikuspegi emozionaletik? Ipuina irakurtzeko ekintza hori guraso edo hezitzailearekin batera egiten badu, komunikazio afektiborako ekintza bilakatzen da; ipuina bihur daiteke haurraren eta helduaren arteko lotura afektiboa sendotzeko tresna, afektibitate eta konfiantzazko momentu goxoak sortzen dituelako, bere heldu horren denbora "preziatu" hori berari eskaintzen diolako, maite duelako (Alonso, 2015)

Hau guztia ikusi ondoren, lehenik eta behin hezitzailearengan hasten den lana azpimarratuko da. Hezitzaileak benetan bere kabuz barneratua duena soilik erakutsiko dio haurrari. Ikaskuntzak bizia izan behar du, ez errezeta bat. Ikaskuntza hezkuntzaren bizitzatik loratzen den zerbait izan behar du. Eta ikaskuntza loratu egingen da, irakaslea unibertso osoarekin dituen bizipenen estutik hasita hazten bada (Steiner, 1923). Ondorio gisara, azpimarratu beharra dago interbentzio hezitzailea egokia denaren frogapena haurraren zorientasuna dela (Montessori, 1952).



## INTRODUCCIÓN

La idea de combinar los cuentos del mundo y los sentimientos, las emociones y los valores, me ha surgido al ver la falta de conocimiento sobre las emociones, los sentimientos y los valores que tienen los niños de hoy en día, y la necesidad de este tipo de educación. En primer lugar está el conocer las emociones, los sentimientos y los valores a través de las historias del enriquecedor mundo de la literatura, y ayudar a obtener esa información, porque a mi modo de ver, es necesario ayudarles de esta manera y plenamente en su desarrollo y equilibrio emocional. Después de todo, la educación emocional tiene un impacto directo en ellos y lo tendrán también más adelante en esta sociedad o en otras sociedades, y de la forma en que me estoy formando para ser maestra y basándome en la enorme responsabilidad que supone este campo de la educación, creo que es esencial darles a los niños este aspecto.

Por otro lado, y viendo que no solo es el trabajo de los niños, una de las razones principales para elegir este tema es que por la parte de la capacitación y el trabajo, todo lo que se puede realizar a nivel universitario, así como con los maestros y los padres y madres en las escuelas. En este campo hay muchas cosas que hacer, estoy segura de que se abrirán muchas puertas y que habrá muchos momentos maravillosos en el futuro.

Por esta razón, cuando se trata de entrar en un área como la literatura y la educación primaria, es importante decir que este mundo es amplio. Concretamente y para explicar qué es y en qué se basa la literatura infantil, se deben cumplir dos funciones básicas para que la literatura sea infantil: que acoja y que separe. Por un lado, hay tebeos, películas, juegos de palabras, giros, adivinanzas, expresiones, canciones, etc., y por otro lado, tal y como señala Cervera (1992), se garantiza que es la literatura y todos los soportes que engloba.

Cuando se trata del origen, la literatura infantil siempre ha sido un debate profundo sobre si es literatura o es pedagogía. A mediados del siglo XX, tras la Segunda Guerra Mundial, los educadores comenzaron a resaltar la importancia que tenía el libro infantil, llegándose a realizar la siguiente clasificación de la literatura infantil: literatura

instrumental (para la escuela), la literatura vencida (cuentos populares, las de Charles Perrault como la adaptación "Las mil noches y una noche más", canciones antiguas, coplas para jugar, etc) y la literatura expresamente creada para niños (cuentos o novelas, poemas o obras de teatro).

Los cuentos folklóricos o populares sobre historias tradicionales son populares en todos los países y culturas, transmitidos de generación en generación de forma oral. Muchos se han recogido por escrito, especialmente durante el romanticismo, y algunos antes (Zubizarreta, 2002).

Si nos fijamos en las colecciones globales, estas incluyen *Pantchatantra*, la colección principal de cuentos de la India, dividida en cinco libros. A parte de los cuentos, también hay apologistas, morales y otros textos. Por otro lado hay traducciones al árabe; la cultura bizantina también se expandió y condujo principalmente al budismo oriental. Otra colección que tenemos es *Las mil y una noches más*, la colección principal de los árabes. Siguiendo a Casares (2018), como resultado, algunas expresiones literarias de la primera infancia están relacionadas con los juegos y con las fiestas, así como la poesía popular y el teatro, y más que la literatura didáctica era un pasatiempo.

Después de esto, el cuento junto con la poesía, seguramente será el género literario más antiguo. Sin embargo, en la literatura culta este contacto se ha llevado a cabo muy tarde y de manera muy autónoma (Zubizarreta, 2002).

Así, hay tres funciones diferentes dentro de la literatura infantil y juvenil. En una sociedad particular acercarle al niño y compartir con él la representación simbólica de la realidad -imaginario colectivo- que se muestra a través de la literatura. Por otro lado, saber más y más sobre las formas narrativas, poéticas y dramáticas hacia donde el niño se está enfocando en el discurso literario de su cultura, así como proporcionar a las nuevas generaciones una representación organizada culturalmente como una forma de socializar (Colomer, 1999).

Por lo tanto, como sumergirse en el mundo de los cuentos y de los sentimientos, de las emociones y de los valores, ofrece infinitas y amplias posibilidades, los cuentos se considerarán como herramientas en este Trabajo Final de Grado.

Los cuentos nos ofrecen muchas enseñanzas: desarrollar la creatividad, adquirir el conocimiento de diversos valores y costumbres, fomentar la comunicación, etc. Por este motivo, los cuentos se pueden convertir en compañeros de camino, transmitiéndonos en importantes y enriquecedoras herramientas para afrontar el día a día (Larburu, 2017).

Esta es una de las claves, como dice la psicomotricista Larburu, de la *Escuela María y José* de Zumaia, que los cuentos ofrecen herramientas de desarrollo a los niños. Siempre tienen un gran impacto en su desarrollo, es necesario proporcionar tiempo y espacio para los cuentos. Aquí hay una idea que más adelante se profundizará aún más, y es que en la educación que se le ofrece a un niño en una escuela, hay que encontrar un equilibrio entre el lado intelectual y el emocional.

Hoy en día hay cuentos específicos para trabajar ciertas emociones concretas. Es fácil sentirse emocionado con estos cuentos porque ayuda a expresar lo que el niño siente (Eceiza, 2017). Darle la importancia que tiene al hecho de sentir y si a las emociones se les ofrece el espacio que les pertenece, todo esto proporciona un equilibrio al niño. Así el desarrollo se llevará a cabo de una manera integral, mucho más rica y más completa. Por lo tanto, como dijo Eceiza, la orientadora de la *Ikastola Laskorain*, el mundo de los cuentos sobre las emociones es muy amplio, y con esto, se realizará un trabajo directo sobre las emociones de los niños. Aquí hay una gran oportunidad para trabajar sobre temas que en la actualidad son muy importantes, como el divorcio, el género, la intimidación, el amor, el respeto, la autoestima, la competitividad, el miedo, la tristeza, la soledad, la felicidad, la muerte, etc.

Es por eso que cautivan tanto las fantasías o los cuentos a los niños. Lo que siente dentro de sí mismo, sus deseos, temores y experiencias, los comprende especialmente a través de los cuentos y de la ficción. Los cuentos no le hablan solo a la mente del niño o de la niña, a su razonamiento, sino también a su corazón (Alonso, 2015).

Por otro lado, hay otro aspecto que es muy importante para ellos, y es que aquí está la idea de que los cuentos y la literatura infantil pueden convertirse en una herramienta para fortalecer la conexión emocional entre el niño y el adulto (Alonso, 2015).

Pero, ¿qué más le da la literatura al niño o a l desde una perspectiva emocional? Si el acto de leer el cuento va de la mano de los padres o de los educadores se convierte en un acto de comunicación afectiva; la historia puede convertirse en un instrumento para fortalecer la conexión afectiva entre el niño y el adulto, porque crea momentos cariñosos y confiables, porque para el adult ese “preciado” momento es para dedicar al niño (Alonso, 2015).

Después de ver todo esto, en primer lugar, se enfatizará el trabajo que comienza en el educador. El educador sólo le mostrará a un niño lo que realmente tiene integrado en sí mismo. El aprendizaje debe ser vivo, no una receta. El aprendizaje debe ser algo que brota de la vida de la educación. Y el aprendizaje florecerá si el maestro crece a la altura de todo su universo (Steiner, 1923). Como conclusión, debemos señalar que la prueba de lo que es apropiado para la intervención educativa será la felicidad del niño (Montessori, 1952).

## 1. HELBURUAK

Nire ikaskuntzaren ibilbidean, duela urte anitz Magisteritza Atzerritar Hizkuntza ikasteen Psikologia arloan izandako hainbat ikasgaietan ikasitakoarekin laguntza jaso nuen haurren emozioen eta hurrek irakurtzen dutenaren eraginari buruz. Honela bada, Irakurketa-idazketa prozesua, Estetika eta Hezkuntza, Hezkuntzaren soziologia eta Hezkuntzaren Garapena eta Psikologia eta Ikaskuntzaren Psikologia ikasgaiekin. Ikasgai bakoitzak bere modura baina interes hau sortarazi zidan eta baita hurrekin lan egiteko garaian gehiago jakiteko ere. Ondorioz, ikasitakoa hurrekin praktikara eraman ahal izateko laguntza hori jasotzea bere neurrian baliagarria izan zitzaidan.

Eta oraindira jauzi eginez, Gradu Bukaerako Lan hau egiteak, ikasketa haiek ildo honi buruz ikasteko sortarazi zidaten gogo hura argitara ateratzeko aukera ematen dit eta niretzat guzti hau adierazteko aukera eder bat dela aipatu nahiko nuke.

Bestetik, Psikologiako Lizentziaturan ikasitako beste zenbait ikasgaiek ere lan honekin lotutako informazio anitz eskaini zidaten. Esate baterako Motibazioa eta Emozioa, Psikologiaren Sarrera, Atentzioa eta Arreta, Garapenaren Psikologia eta Psikologia Soziala. Haurren prozesuak ulertzen, estimuluek eurengan duten eragin sakona, gizarte mailan mota bateko edo besteko heziketak hurrengan duen eragina eta hemen ematen diren fenomeno garrantzitsuak eta aldi berean, maila praktiko batetik bizitzeko aukerak jasotzeak izugarri lagundu ninduen. Hortaz, orain Gradu Amaierako Lan honetan azaltzeko guztiz lagungarri izango zait orduan jaso nuen guzti hura.

Eta berriro ere orainaldian kokatuz, orain amaitzear ditudan Lehen Hezkuntzako Irakasletza Graduko ikaskuntzari buruz, aipatu, ikasgai ezberdinetan jaso dudala nire lan honekin lotutako informazio ezberdina. Bereziki Haur eta Gazte Literaturaren Didaktikan, Hizkuntzaren Didaktikan, Oinarri Psikologikoak eta Kultur Aniztasuna ikasgaietan. Beste zenbait ikasgai ere eskaini didate laguntza ildo honetan, hala nola, Gizartea, Familia eta Eskola Inklusiboa, Erantzun Psikopedagogiko eta Aniztasuna, eta Irakasle Lanbidea ikasgaiek.

Practicumari dagokionean, bereziki iaz Mendigoiti Ikastetxean egindako praktikaldiak asko lagundu ninduela aipatu nahiko nuke. Aukera asko izan nituen hurrekin ipuinak eta emozioak lantzeko Lehen Hezkuntzan, eta oso lagungarria suertatu zitzaidan bertan biziutako esperientzia. Askok ikasi nuen haurren arretari buruz, euren bizipenak adierazteko duten beharri buruz, emozio ezberdinak lantzeak eurengan duen eraginari buruz, ea.... Eta aurtengo praktika saioetan ere, Bernart Etxepare Ikastetxean ipuinak kontatzeko aukera eskaini zait eta balore eta emozioen inguruko heziketa mota hontan murgilduta nago, etengabe ikasiz.

### **1.1. Helburu orokorrak: Unibertsitateari ECI ordenak ezartzen dizkion gaitasunak**

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko Magisteritza ikasketen Practicum-eko Gida Didaktikoan aipatzen dira euskarara ekarriak Lehen Hezkuntzarako Irakasletza Gradurako Hezkuntza Ministeritzak ezartzen dituen gaitasunak. Letra etzanez nabarmentzen ditugu hemen gure lan honetan bereziki landuko ditugunak, gainerakoak ere neurri handiagoan edo txikiagoan kontuan hartuko ditugun arren.

GO1	<i>Lehen Hezkuntzako curriculum-arloak, beren diziplinen arteko harremanak eta ebaluazio irizpideak ezagutzea, baita dagozkien irakaskuntza eta ikasketa prozeduren inguruko ezagutza didaktikoen multzoa ere.</i>
GO2	<i>Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak diseinatzea, planifikatzea eta ebaluatzea, banaka zein beste irakasle batzuekin eta ikastetxeko profesionalekin lankidetzan.</i>
GO3	<i>Eraginkortasunez aztertzea hizkuntzen ikasketa-egoerak testuinguru kultur-aniztun eta eleaniztunetan. Eskola curriculumeko zientzia eta kultura eremuetako testuen irakurketa eta iruzkin kritikoa sustatzea.</i>

GO4	<i>Ikasteko espazioak dibertsitatearen testuinguruetan diseinatzea eta erregulatzea, arretaz hartuz, genero berdintasuna, ekitatea eta herritarren prestakuntzako balioen funtsa diren giza eskubideentzako errespetua eta sustapena.</i>
GO5	<i>Ikasgelan eta hortik kanpoan bizikidetza sustatzea, diziplina arazoak konpontzea eta gatazkak era baketsuan konpontzen laguntzea. Ikasle bakoitzaren ahalegina, konstantzia eta diziplina sustatzea eta balioestea.</i>
GO6	<i>Lehen hezkuntzako ikastetxeen antolaketa eta bere funtzionamenduaren barruan sartzen diren jarduera desberdinak ezagutzea. Ikasleekin eta beren familiekin tutoretza lanak eta orientazio lanak egitea, ikasleek dituzten hezkuntza-behar bereziak kontuan hartuz. Irakaslana hobetu eta bizi osoan zehar gertatzen diren aldaketa zientifiko, pedagogiko eta sozialetara egokitu behar dela onartzea.</i>
GO7	<i>Hezkuntza komunitateko eta inguruneko hainbat sektoreekin lankidetzan jardutea. Irakaskuntzaren eginkizun hezitzailea norbereganatzea, eta hiritartasun aktibo baterako heziketa demokratikoa sustatzea.</i>
GO8	<i>Harreman kritikoa eta autonomia edukitzea, jakintzei, balioei eta gizarte erakunde publiko eta pribatuei buruz.</i>
GO9	<i>Etorkizun jasangarria izateko norbanakoen eta gizartearen erantzukizuna balioestea.</i>
GO10	<i>Ikasgelako praktikei buruz gogoeta egitea, irakaskuntza berritu eta hobetzeko. Azturak eta trebetasunak eskuratzea ikasketan autonomo eta kooperatiboa ikasleen artean sustatzeko.</i>

GO11	Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak ezagutzea eta ikasgelan aplikatzea. Ikasketetan, herritar prestakuntzan eta kultura aberastasunean laguntzen duen ikus-entzunezko informazioa aukeratzea.
GO12	<i>Gaurko gizartean hezkuntzaren funtzioa, aukerak eta mugak zeintzuk diren ulertzea, eta haur hezkuntzako ikastetxeak eta beren profesionalak ukitzen dituzten oinarrizko gaitasunak zeintzuk diren ulertzea. Ikastetxeetan aplikagarriak diren kalitatea hobetzeko ereduak ezagutzea.</i>

## 1.2. Eskola garatzeko gaitasunak, helburuak eta bizikidetzaren balioak

Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumaren (LOMCEren moldaketa denaren) 4. artikulua Lehen Hezkuntzako etaparen helburuak zehazten ditu. Honako helburu hauek erdiestea ahalbidetuko dieten gaitasunak haurrengan garatzen lagundu behar du Lehen Hezkuntzak:

- a) Bizikidetzaren balioak eta arauak ezagutu eta preziatzea, haien arabera jokatzeko ikasi, herritar gisa jarduteko prestatu eta giza eskubideak eta gizarte demokratiko bateko berezko duen aniztasuna errespetatzea.
- b) Taldeko nahiz bakarkako lanerako aztura, ikastean ahalegina egitekoa, eta erantzukizunez aritzekoa, eta norberarengan konfiantza, zentzu kritikoa, ekimena, jakin-nahia, interesa eta sormena ikasketen prozesuan, eta ekintzaitetza.
- c) Gatazkei aurrea hartu eta modu baketsuan konpontzeko trebetasunak bereganatzea, horrela familian eta etxe barnean eta berekin harremanak dituzten gizarte taldeekin autonomiaz moldatzeko.
- d) Kultura desberdinak eta pertsonen arteko desberdintasunak ezagutu, ulertu eta errespetatzea eta, halaber, emakume eta gizonen arteko eskubide eta aukeren berdintasuna, eta ez-gaitasunen bat duten pertsonak ez diskriminatzea.



e) Gaztelania eta, bere kasuan, euskara modu egokian jakin eta erabiltzea eta irakurtzeko aztura bereganatzea.

f) Atzerriko hizkuntza batean, gutxienez, oinarrizko komunikazio gaitasuna bereganatzea, mezu errazak adierazi eta ulertzeko eta eguneroko egoeretan moldatzeko aukera emanen diena.

g) Matematikako oinarrizko gaitasunak garatu eta kalkuluko eragiketa oinarrizkoak, geometria ezagutzak eta estimazioak egitea eskatzen duten problemak ebazten hastea, eta horiek guztiak eguneroko bizitzako egoeretan aplikatzeko gauza izatea.

h) Natur zientzien, gizarte zientzien, geografiaren, historiaren eta kulturaren oinarrizko alderdiak ezagutzea eta, orobat, ezagutzen hastea Nafarroaren geografia eta historia eta Nafarroa berezi egiten duten hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasuna, Nafarroako Foru Komunitateko kide izatearen sentimendua garatzeko asmoz.

i) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasketarako erabiltzen hastea, eta jasotzen eta lantzen diren mezuen aurrean jarrera kritikoa hartzea.

j) Era askotako irudikapen eta adierazpen artistikoak erabiltzea, sentikortasun estetikoa, sormena eta artelanez eta arte adierazpenez gozatzeko ahalmena garatzea, eta ikusizko eta ikus-entzunezko proposamenak gauzatzen hastea.

k) Higienea eta osasuna aintzat hartu, norberaren eta besteen gorputza onartu, desberdintasunak errespetatu eta gorputz hezkuntza eta kirola garapen pertsonal eta sozialerako lagungarri gisa erabiltzea.

l) Landareak eta animaliak ezagutzea eta balioestea, bereziki Nafarroan daudenak, eta haiek zaintzearen, garapen iraunkorraren eta ingurumenarekiko errespetuaren aldeko portaerak hartzea.

m) Nortasunaren arlo guztietan eta besteekiko harremanetan ahalmen afektiboak eta indarkeriaren, edonolako aurreiritzi eta diskriminazioen eta estereotipo sexisten aurkako jarrera garatzea.

n) Bide hezkuntza eta zirkulazio istripuen prebentzioan eragina duten begirune jarrerak bultzatzea.

### **1.2.1. Lehen Hezkuntzako gelan garatzeko gaitasunak**

Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumaren 8. artikulua Lehen Hezkuntzako etapan lortu behar diren gaitasunak zehazten ditu. Hona hemen hitzez hitz curriculumetik hartutako gaitasunak, guk gure proposamen honetan betetzeko behar ditugunak:

1. Ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak honako hauek dira:

1.–Hizkuntza komunikazioa.

2.–Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak.

2.1.–Matematika gaitasuna.

2.2.–Zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak.

3.–Gaitasun digitala.

4.–Ikasten ikastea.

5.–Gaitasun sozial eta zibikoak.

6.–Ekimena eta ekintzailtza.

7.–Kultura kontzientzia eta adierazpenak.

2. Etapan zehar gaitasun hauen garapena indartuko da: hizkuntza komunikazioa, matematika gaitasuna, eta zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak.

3. Hizkuntza komunikazioko gaitasuna gainerako gaitasunak eskuratzeko funtsezko faktorea denez, irakurtzeko estrategien eta testu idatzien ekoizpenaren irakaskuntzari tratamendu berezia emanen zaio. Gainera, egunero irakurtzeko denbora erreserbatu

beharko da arlo guztietan, horrek deusetan galarazi gabe irakurketa sustatzeko behar beste saio gehigarri ezartzea.

4. Gaitasunak eraginkortasunez eskuratzeko eta curriculumean benetan txertatzeko, ikasleei gaitasun bat baino gehiago aldi berean lantzeko aukera emanen dieten ikaskuntza jarduera integratuak diseinatuko dira, ikasia errealitateari aplikatu diezaioten.

### **1.2.2. Aniztasunari arreta**

Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumaren 15. artikulua hitzez hitz zehazten duenez:

1. Hezkuntzako esku-hartzeak printzipio bezala hartu behar du ikasleen aniztasuna, eta ikasle guztien hezkuntza garapena bakoitzaren premien arabera arreta pertsonalizatuarekin bateratu behar du.

2. Ikasteko zailtasunak hauteman bezain laster errefortzuko mekanismoak jarriko dira martxan, antolaketaren nahiz curriculumaren eremuan. Neurri horien artean sar daitezke ikastalde arruntean sostengua jasotzea, taldekatze malguak edo curriculumaren egokitzapenak.

3. Ikasleen aniztasunaren arretarako ikastetxearen baliabideak antolatzerakoan ekitateko, eraginkortasuneko eta osagarritasuneko irizpideei jarraituko zaie.

### **1.2.3. Berariazko premien printzipio orokorrak**

Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumaren 16. artikulua hezkuntza sostenguko premia berariazkoak dituzten ikasleen beharrak asetzeko ezinbesteko printzipio orokorrak hitzez hitz zehazten dituenez (2014ko irailaren 5a, ostirala 174. zenbakia - 5. orrialdea):

1. Hezkuntza sostenguko premia berariazkoak dituzten ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera berdina izan ditzaten, hezkuntzako inklusioa, aukera berdintasuna eta diskriminazio eza, malgutasun neurriak eta alternatiba metodologikoak, curriculumaren

egokitzapenak, irisgarritasun unibertsala eta beharrezkoak diren neurri guztiak sustatuko

ditu Hezkuntza Departamentuak.

2. Hezkuntza Departamentuak beharrezkoak diren baliabideak eskainiko ditu, arrazionaltasuneko eta eraginkortasuneko irizpideekin, arruntaz bestelako hezkuntza arreta behar duten ikasleek beren ahalmen pertsonalak ahalik eta gehien garatu eta ikasle guztientzat ezarritako helburu orokorrak eta gaitasunak lortu ahal izan ditzaten. Ikasleek arreta horren beharra izan dezakete hezkuntza premia bereziak izateagatik, hezkuntza sisteman berandu sartzeagatik, ikasteko zailtasun berariazkoak –besteak beste AFNH– izateagatik, adimen gaitasun handiak izateagatik, edota egoera pertsonaleko edo ikasketa historialeko gorabeherengatik.

3. Aurreko atalean aipatutako ikasleen hezkuntza premia berariazkoak goiz identifikatzeko behar diren baliabideak eta prozedurak ezarriko ditu Hezkuntza Departamentuak. Premia hori identifikatu bezain laster hasiko da arreta integrala, eta berariazko esku-hartzearen, normalizazioaren eta inklusioaren printzipioei jarraituko die.

4. Hezkuntza Departamentuak ikasle horiek curriculumak garatu ahal dezaten lagungarriak izanen diren irisgarritasun baldintzak eta sostengu baliabideak ezarriko ditu, eta ebaluazioak behar bezala eginen direla ziurtatzeko tresnak eta, behar denean, denborak eta sostenguak egokituko ditu, 3. ikasmilako banakako ebaluaziorako eta etapa amaierako ebaluaziorako barne.

#### **1.2.4. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak**

Artikulu berberaren bigarren azpitalean Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen beharrei aurre egiteko ondoko proposamen hauek hitzez hitz jasotzen dira:

1. Atal honetan sartzen diren ikasleendako curriculumetik nabarmen aldentzen diren egokitzapenak egin ahal izanen dira, helburuen eta gaitasunen garapenik handiena bilatuz.

2. Etengabeko ebaluazioa egiterakoan erreferente gisa hartuko dira kasuan kasuko curriculum egokitzapenetan finkatutako elementuak eta egokitzapenaren xede diren ikasmaita eta arloetako ebaluatu beharreko ikaskuntzako estandarrik.

3. Malgutze-neurriak eta atzerriko hizkuntza irakasteko eta ebaluatzeko ordeko metodologiak ezarriko dira desgaitasunen bat duten ikasleentzat, batez ere, ahoz adierazteko zailtasunak dituztenentzat. Egokitzapen horiek ez dira inola ere kontuan hartuko lortutako kalifikazioak gutxiagotzeko.

4. Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera etapan urte bat gehiago egiteko aukera deusetan galarazi gabe, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek urte bat gehiago eman ahal izanen dute Lehen Hezkuntzako etapan eskolatuta ikastetxe arruntetan, betiere horrek haien gizarte eta hezkuntzako integrazioari mesede egiten badio.

### **1.3. Helburu didaktikoak**

Munduko ipuinekin eta emozio, sentipen eta baloreekin egin beharreko lanak hainbat helburu ditu. Lan sakon honek norabide zehatz eta garbi bat dauka eta norabide horretan forma ezberdinak dituzten ideiak daude.

Ezinbestekoa da helburu hauek betetzea haurrekin benetako lan bat egin nahi bada eta helburu hauek aurrera eramateko behar diren mekanismo guztiak martxan ezartzea.

Hurrei euren garapenean eragin egoki eta iraunkor bat egin nahi bazaie, derrigorrezkoa da euren iraganean, orainaldian eta geroan pentsatzea. Guzti hau kontuan izanda, helburu ezberdinak planteatzeko aukera izanen da.

Honela bada, hurrengo helburuak izango dira lan hau aurrera eramateko bete beharrekoak:

## **Munduko ipuin ezberdinak ezagutzea.**

Begirada mundu osoari eskaintzen zaion momentutik, aberastasuna dator nagusiki. Hurrek ipuinen bidez beste kulturetako ohiturak gertaerak, izenak, jokabideak, arazoak, joerak, izaerak, ea... ezagutzeak hurrei aberastasun handia eskaintzen zaie. Ezagutza honek euren pentsamenduak askoz ere malguagoak izaten lagunduko die, gizakia askoz hobeto ulertzen, enpatia lantzen eta neurri handi batean, egoera ezberdinek sentiarazten dietena sentitzeko aukera izaten ere.

### **1. Munduko ipuinen bidez emozio, sentimendu eta baloreei buruzko heziketa jasotzea: emozioak zer diren ezagutzea eta emozio mota desberdinak ezberdintzea.**

Ezinbestekoa da hurrek heziketa emozional bat jasotzea. Haur batek asko jakin dezake matematikari buruz, geografia eta historiari buruz edota beste edozein ikasgai edo alorri buruz, eta hau oso lagungarria izan daiteke bere garapenerako eta bere bizitza osorako. Baina argi dagoena da, emozio eta sentimenduak egunero eta uneoro bizitzen direla eta oinarritzko dela honen inguruko ikaskuntza bat izatea eta horretarako heziketa on bat jasotzea. Hurrek, ipuinak tresna gisara erabiliaz, emozio mota ezberdinak ezagutuko dituzte eta egoera ezberdinetan bizitzen diren edota dituzten emozio eta sentimenduak ezberdinduko dituzte horrela. Ezberdintzen jakiteak, lasaitasuna eta askatasuna ere ematen die, kudeatzen ikasteko eta euren garapenean aurrera joateko.

### **2. Autoestimua, norbere buruarekiko konfidantza eta oreka emozionala izaten laguntzea.**

Emozio eta sentimenduak ezagutzen dituzten momentutik aurrera, hurrek lasaitasuna sentituko dute. Jada edozein egoeren aurrean sentitzen dutena identifikatzen jakiteko aukera izango dute eta era honetara euren buruarekiko geroz eta konfidantza gehiago izango dute. Bizitzen eta sentitzen dutenaz konsziente izateak, euren buruaren jabe direnaren sentazioa eskainiko die eta honekin oreka emozionala izaten ikasiko dute. Oreka emozionala izateak euren barnean bakea sentitzea ekartzen du eta barneko atmosfera baketsu horretan intuizioa bezalako fakultateak garatzen dira, pertsonen garapenerako guztiz lagungarri.

### **3. Baloreak lantzea; aniztasuna, errespetua, malgutasuna, maitasuna...**

Urteetan zehar aldatu izan diren Hezkuntza Sistema mota ezberdinetan adierazi bezala, baloreak lantzea beti helburu garrantzitsuetako bat izan da. Ikusten den bezala, bai eskoletako Aniztasun Planean, Etapako helburuetan, LOMCEren arabera, ea... baloreek pisu handia dute eta horregatik, ezinbestekoa da arduraz eta konpromenez beteta bertan murgiltzea. Haurren geroari begira, pentsatu beharra dago irakasleak, politikoak, medikuak, idazleak, kirolariak, artistak, ea... izan daitezkeela gerora eta hezitzaileek ardura handia dutela euren haurtzaroan baloreei buruzko ezagutza eskaini eta ildo honetan garatzen laguntzeko. Lehenik eta behin euren buruenganako errespetua, maitasuna, ea... lantzen erakustea eta behin hori barneratzean, besteekin era berean erlazionatzea ekarriko du.

### **4. Historian zehar ipuinak tresna garrantzitsuak izan dira beti eta ipuinen bidez magia eta jakituria transmititzen jarraitzea.**

Arbasoen jakituriarekiko errespetua izaten eta mantentzen erakustea. Era berean, gure arbasoek transmititutako jakituria egunerokotasunean nola erabil daitekeen ikastea. Bereziki munduko ipuinetan, badira kultura asko non arbasoen alderdi hau beti oso presente izan duten eta egun ere izaten jarraitzen duten. Haurrari arbasoen jakituria horretan magia anitz dagoela erakustea eta gizakiak iraganean ikasitakoarekin gaur egun laguntza handia jaso dezakegula eguneroko edozein egoera bizitzerako orduan. Honekin batera, eurek egindako lanarekiko errespetua eta miresmena sentitzen erakustea eta nola iragana, orainaldia eta geroa uztarturik daudela ikustea ere.

### **5. Hurrek ipuinak zuzenean entzutea eta sentitzeko eta bizitzeko aukera izatea.**

Ez da gauza bera hurrek ipuinak telebista edo bideo baten bidez jasotzea edota zuzenean bizitzea. Haurrak, ipuina kontatzen duenaren ahotsarekin, mugimenduekin, begiradekin, ea... emozio eta sentimendu ezberdin asko bizitzen ditu eta guzti hau dena sentitzeko aukera eskaintzea ezinbestekoa da. Honelako egoerak bizitzeari eta sentitzeari duten garrantzia sakona eman behar zaio eta hau dena ipuinen bidez egitea guztiz aberasgarri eta beharrezkoa da euren garapenerako.

**6. Munduko ipuinei buruz solastea, eta sor daitezkeen jarduerak aurrera eramatea: antzerkitxoan bidez interpretatzea, margotzea, txandaka irakurtzea, gorputz adierazpena, adierazpen artistikoa, dantza eta mugimendua lantzea.**

Haurrei sentitzen eta bizitzen dutena adierazteko espazioa eskaintzeak berebiziko garrantzia dauka. Ez bazaie mugimendurako eta sormen eta adierazpenerako denbora zein espaziorik eskaintzen, ikaskuntza nekez izango da esanguratsua. Egoera konplexuen (erasoak, legeak ez errespetatzea, ea...) aurrean ere zer den ongi jokatzeko buruz ikas dezakete baina gero praktikan, argi eta garbi erakutsi ez daukatela batere barneratua. Soilik mentalki ikasitakoa dela baina sentitzera iritsi ez direna. Horregatik, munduko ipuinen bidez edozein egoera eta gai landu daitekeenez, guzti hori irudien bidez, dantza eta mugimenduaren bidez, ea... adieraztea.

**7. Irakurzaletasuna sustatu.**

Egun bizi dugun errealitatea erreparatuz gero, geroz eta komunikazio gutxiago dago pertsonen artean eta geroz eta komunikazioa gehiago teknologia berriekin. Hemen datu kezkarriak daude eta era berean, lehen ez zeuden geroz eta egoera arriskutsu gehiago, adibidez cibercyberbullying-a. Guzti honek halako indarra hartu baino lehen, familietan, maila sozialean, etxean, ea... oro har eman ohi zen komunikazioa askoz ere zuzenagoa zen. Honekin ere ikusi behar da gaur egun helduek ze eredu ematen duten eta ez ahaztea irakurtzeak pertsonaren ezagutza zabaltzen eta kultura gehiago izaten laguntzen duela besteak beste. Hortaz, gaur egungo haurrei esfortzu handia suposatzen die normalean liburuak irakurtzea eta ez ordea ordenagailuekin edo IKT-ekin ibiltzea.

Egiten diren ikerketen arabera, geroz eta emaitza gogorragoak argitaratzen dira, hala nola, haurrek IKT-ekiko menpekotasun maila altua dutela, gehiegizko estimulazioa dutela, lo egiteko arazoak, komunikatzeko zailtasunak, erasotzeko geroz eta joera gehiago eta modu bortitza, ea... Hortaz, arrazoi hauengatik, irakurzaletasuna bultzatzea ezinbestekoa da. Haurrak arrisku guzti hauetatik ateratzeko era garrantzitsu bat da hau, liburuak irakurtzea, liburuen unibertso zabala eta sakonean sartzea, eta era berean, lasai egoten ikasteko modu bat izatea.



## **8. Arreta lantzea eta haurrak giro lasaian egotea.**

Aurreko helburuari lotuta, gaur egungo bizimoduaren abiadura eta aktibitatea, oro har askoz azkarragoa dela ikusten denez, haurrekin ikasgelan eta orokorrean ikastetxean, edonon daudelarik ere, giro lasaia sortzearen garrantzia. Honekin batera, haurrei arreta mantentzen laguntzea zeren geroz eta dispertsio gehiago daukatela ikusten da (helduengan ikusten den bezalaxe) eta arreta mantentzeko arazoak izaten dituztela maiztasunez. Modu honetara, haurrei Natura bezala, gauza bakoitzak bere momentua duela erakustea eta bizitzen duten horretan arreta jartzeak ekartzean dizkien ikaskuntzez eta magia gozatzeko irakastea.

## **9. Euren eguneroko bizipenak ipuinen bidez ulertzen eta hobetzen laguntzea.**

Haurrengan ipuinek duten eragin sakona ikusita, euren egunerokotasunean bizitzen dituzten egoera asko ulertzen laguntzen diete ipuinek. Arazoak nola konpondu, egoera ezberdinak bizitzeko era ezberdinak ezagutu, pertsonen jokaerak ulertu, aldaketak nola eman ikasi, ea... Munduko ipuinen bidez lan mota hau egitearekin euren eguneroko bizitza eta inguruan ematen dena ulertu, eta guztia hobetzen laguntzea.

## **10. Gatazkak konpontzeko heziketa emozional bat eskaintzea; ikuspuntu eta izaera ezberdinak ulertzen eta errespetatzen erakutsiz eta elkar ulertzen laguntzea.**

Honetarako munduko ipuinak guztiz lagungarriak izango dira. Ipuinetan gatazkak sentitzeko aukera izanen dute, konpontzeko moduak ikustekoa, gatazkak alderdi ezberdinetatik nola ikusten diren ikastekoa eta guzti honekin errespetuz tratatzen eta bizitzen erakustekoa. Hau lantzeak, elkar laguntzera eramatea eta jakitea ikaskuntza hau bizitza osorako dela. Haurtzarotik lantzea alderdi garrantzitsu hau zeren arazo eta gatazkak edozein espaziotan izateko aukera izanen baitute euren geroan, hala nola, euren buruekin, lantokietan, familian, bikotean, kalean, ea... Arlo honetan lan asko egitea haurrek hau dena ongi integratzeko eta txikitatik hasita ongi barneratzeko era etiko batean bizitzea edonon daudelarik ere.

**11. Euren sormena garatzen eta autonomia izaten laguntzea.**

Munduko ipuinen bidez, hurrek sormena izatea bultzatuko da beraien bizitzetan sor daitezkeen edozein egoera aurrera eramaten ikasiz. Era berean, ipuin mota ezberdinak ezagutzea sormenaren mundu zabalean barna bidaiatzeko ere oso lagungarri izango da, bai ipuinek sentiarazitakoa adierazteko edota ikasitakoarekin istorioak, melodiak, kankak, marrazkiak, etab sortzeko.

## 2. CURRICULUMA

Lehen Hezkuntzan eragina eta ezarpena izateko bokazioa duen edozein lan ekiteko unean oso kontuan hartu behar da gure ekintza pedagogikoren joku arauak zehazten eta mugatzen duen legedia. Urrari (2018) jarraikiz Hezkuntza-programa da. Bertan programaren hezkuntza-xedea, xede hori lortzeko be harrezko diren eduki, irakaskuntza-prozedura eta ikaskuntza-esperientziak eta, azkenik, helburuak lortu diren ala ez egiaztatzeko zenbait baliabide zehazten dira. Ikasleak ikasitakoa aberats dezan eraturako praktika- eta ikasketa-multzoa. Egilearen iritziz, curriculuma hiru ikuspegietatik uler dezakegu:

1. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren edukiaren aldetik: zertarako eta zer irakatsi.
2. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren planifikazioa edo antolaketa: curriculumaren diseinua.
3. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren aplikazioa: curriculumaren bilakaera.

Hiru alor horietan lan egin behar dugu eta gure proposamen didaktikoa bertan txertatuko da, curriculum osatzen dituzten elementuak garatuz: helburuak, berariazko edukien integrazioa bultzatzeko eta ezartzeko gaitasun edo trebetasunak, metodologia didaktikoa (irakas-praktikak zein irakasleen lanaren antolaketa adieraziz), ebaluagarriak diren irakaskuntza estandarrak eta ondorioak, gaitasunen eta helburuen lorpena neurtzeko ebaluazio irizpideak, etab.

### 2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Curriculumak

Hori dela eta, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Curriculumak (LOMCE) honelaxe definitzen du hitzez hitz:

1. Curriculum bezala ezagutzen da irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak zehazten dituzten elementuen arauketa.
2. Ondoko elementu hauek dira Lehen Hezkuntzako curriculumak osatzen dutenak:

a) Foru Dekretu honen 4. artikuluan ezarritako helburuak, etapa bukaerarako ikasleek erdietsi beharko lituzketen lorpen orokor bezala ulertuta.

b) Ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak, edukiak modu bateratuan aplikatzeko haien ahalmenen garapen bezala ulertuta, jarduerak behar bezala egiteko eta testuinguru batean kokatutako problemak eraginkortasunez ebazteko.

c) Helburuak lortzen eta gaitasunak eskuratzen laguntzen duten edukiak edo ezagutzen, abilezien, trebetasunen eta jarreraren multzoa. Etapa honetako edukiak arloka antolatuta daude.

d) Ebaluazio irizpideak, gaitasunen eskuratze maila eta helburuen lorpen maila zehazteko balio dutenak. Arlo bakoitzak bere ebaluazio irizpideak ditu, arloan erdietsi nahi denaren arabera.

e) Ebaluatu beharreko ikaskuntzako estandarrak, ebaluazio irizpideen zehaztapen bezala ulertuta. Behagarriak, neurgarriak eta ebaluagarriak izan behar dute eta errendimendua edo erdietsitako lorpena mailakatzeko aukera eman behar dute. Halaber, proba estandarizatu eta konparagarriak diseinatzen laguntzen dute.

f) Metodologia didaktikoa, irakaslanaren deskribapena zein irakaslanaren antolaketa barne hartzen dituen. Ikasleek ikasi eta gaitasunak eta helburuak lortu ahal ditzaten irakasleek, kontzienteki eta hausnarturik, antolatzen eta planifikatzen dituzten estrategien, prozeduren eta ekintzen multzoa da.

3. Irakasle taldeei dagokie metodologia didaktikoaren gaineko erabakiak hartzea, ikasle guztien arrakasta erdiesteko ikuspegi egokienak bilatuz.

4. Arlo bakoitzerako edukiak, ebaluazio irizpideak eta ebaluatu beharreko ikaskuntzako estandarrak foru dekretu honen eranskinetan zehazten dira, Erljio arlorako izan ezik.

5. Ikastetxeek foru dekretu honetan eta hauxe garatzeko arauetan ezarritako Lehen Hezkuntzako curriculumak aplikatuko dute.

## **2.2. Etaparen antolaketa. Arloak.**

Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumaren 6. artikulua Lehen Hezkuntzako etaparen antolaketa eta arloak zehazten ditu.

1. Enborreko arloen blokeari dagokionez, ikasleek ikasmaita guztietan ikasi behar dituzten arlo guztietarik (Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Gaztelania eta Literatura, Matematika eta Atzerriko Lehen Hizkuntza) guk gure proposamena, diziplinartekoa denez gero, Gizarte Zientziei eta Hizkuntzari garrantzi berezia emango diogu, gainerako arloetan ere emozioen gaia jorratu beharko dela bazterrean utzi gabe.

2. Arlo espezifikoaren blokeari dagokionez Balio Sozial eta Zibikoaren gaiari garrantzi berezia emango diogu (gurasek edo legezko tutoreek aukeratutakoaren arabera). Gorputz Hezkuntza ere garrantzi handikoa da gorputzaren adierazpena landu nahi baitugu. Bestalde, Arte Hezkuntza ezinbestekoa dugu arlo emozionala lantzeko unean eta garrantzi berezia emango diogu.

Bestalde, Nafarroako Foru Erkidegoko Curriculumak konfigurazio askeko arloaren blokearen barruan *Euskal Hizkuntza eta Literatura* arloa duenez gero, eta gure proiektu didaktikoak euskarari berebiziko garrantzia eman nahi dionez, arlo hau lehenetsiko da besteen gainetik.

## **2.3. Zeharkako elementuak**

Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumaren 7. artikulua Lehen Hezkuntzako zeharkako elementuak zehazten ditu. Hona hemen hitzez hitz bertan esaten dena:

1. Etapako arlo batzuetan tratamendu berariazkoa ematea ezertan galarazi gabe, arlo guztietan landuko dira irakurriaren ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena, ikus-entzunezko komunikazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologia, ekintzailtza eta hezkuntza zibiko eta konstituzionala.

2. Garapen jasangarriarekin eta ingurumenarekin, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gaizki erabiltzearen ondoriozko arrisku egoerekin, larrialdien eta hondamendien aurkako babesarekin eta sexu esplotazioaren eta sexu abusuen arriskuekin loturiko edukiak sartzen dira Lehen Hezkuntzako curriculumean.

3. Halaber, sormenetik, autonomiatik, ekimenetik, talde lanetik, norberarenganako konfiantzatik eta zentzu kritikotik abiatuta ekintzailletza garatu eta sendotzearen gaineko edukiak sartu dira, eta baita bide hezkuntzaren eta segurtasunaren eta arriskuei aurrea hartzearen gaineko edukiak ere.

4. Ikastetxeek, irakaskuntzako programazioen bitartez eta Hezkuntza Departamentuak xedatzen duenaren arabera, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra eta genero indarkeriaren, indarkeria terroristaren eta indarkeria, arrazismo eta xenofobia forma ororen prebentzioa sustatzen duten balioen garapena bultzatu beharko dute.

5. Era berean, ikastetxeek ekintzak burutuko dituzte ezein izaera edo egoera pertsonal edo sozial dela-eta diskriminazio-ezak eta tratu berdintasunak berezko dituzten balioak sustatzeko helburuarekin eta horretarako, beste neurri batzuen artean, edozein diskriminazio mota suposatzen duten portaera eta eduki sexistak eta estereotipoak ekidinen dituzte.

6. Ikastetxeek, Hezkuntza Departamentuak xedatzen duenaren arabera, ekintzak burutuko dituzte norberaren, familiaren eta gizartearen esparru guztietako gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta prebenitzeko eta bizikidetzaz hobetzeko ikaskuntza sustatzeko helburuarekin eta, orobat, askatasuna, justizia, berdintasuna, aniztasun politikoa, bakea, demokrazia, giza eskubideekiko eta zuzenbide Estatuarekiko errespetua, terrorismoaren biktimekiko errespetua eta begirunea, indarkeria terroristarekiko gaitzespena eta indarkeria terroristaren eta indarkeria mota ororen prebentzioa sostengatzen dituzten balioak sustatzeko.

7. Ikastetxeek, proiektuen bitartez, ekintzak ezarriko dituzte programazio informatikoko oinarritzko trebetasunak eskuratzeko eta hobetzeko helburuarekin.



### **3. ESPARRU TEORIKOA**

Atal honetan, hainbat puntu azalduko dira, hala nola Ipuin motak, balore, sentimendu eta emozioak eta ikastetxe ezberdinei buruzko ateratako datuak. Lehenik eta behin, ipuin motak bost taldetan banatuko direla ikusiko da eta talde bakoitza Kontinente bati loturik doa. Hortaz, Afrikako, Amerikako, Ozeaniako, Asiako eta Europako ipuinei buruzko azalpenak emanen dira.

Jarduerak aurrera eraman ahal izateko eta GBL hau garatu ahal izateko, munduko ipuin anitz irakurri dira eta ipuin guzti hauen erreferentziak bildu lan honetan aurkezteko. Ipuinak gazteleraz eta euskaraz idatzitakoak dira eta hurrei irudien bidez kontatzea erabakitzen denean, hizkuntzak ez duela zertan eragin beharrik ikusi da, baizik eta irudiek eta ahozko eta gorputz mugimenduaren bidezko transmisioak. Jarraian balore, sentimendu eta emozioak izendatuko dira eta bakoitza zertan datzan eta ze lan mota eginen den ere azalduko da.

Azkenik, bai A eta D ereduko ikastetxe ezberdinei buruzko datu batzuk ezagutzearren eta honi buruz hausnartzearren, ipuinen inguruko inkesta bat egin zaie LH1 eta LH6 mailatako irakasleei.

Era berean gauza bera egin da landa eremuko eta hiriko bi ikastetxe ezberdinen datuekin ere.

#### **3.1. Ipuin motak: munduko ipuinak**

Munduko ipuinak azalduko dira atal honetan eta arrazoia, hurrei ikuspegi zabal bat ematea eta munduan barna ipuinen bidez bidaiatzeko aukera ematea da. Lurralde, kultura edo kontinente bakoitzak bere modua edo estiloa izan ohi du bizitza ulertzeko, joera batzuk mantentzeko eta transmititzeko, Naturarekiko, arbasoekiko, ierarkiarekiko, generoarekiko edota musikarekiko konexioa ere ezberdina izaten da, eta hamaika adibide gehiago aurki daitezke ipuinen bidez. Guzti honek haur baten bizitza zenbat eta zenbat aberastu dezakeen eta bere garapen emozional, mental eta orokorrean zenbat laguntzen ahal dion argi dago. Azken finean, begirada estua edo zabaltasunez begiratzeak guztiz alda dezake edonoren bizitza eta ipuinak magia hutsa direlako,



---

ipuien bidez norberaren barrurantz egin daitezkeen bidaiak guztiz magikoak direlako, tresna zoragarri honi buruz hitzegingo da GBL honetan. Hortaz, hau dena gertutik erakustearren, ipuinak mundu osokoak izatea aukeratu da.

### 3.1.1. Europako ipuinak

Europako ipuinei dagokionean, sailkapen bat egin da eta bertan, ipuin zeltiarrak, euskal ipuinak eta greziar ipuinak erabili dira. Hiru kultura hauek eragin eta ondare nabarmenak utzi dituzte Europa mailan. Bakoitzak bere modura, bizitza, boterea, giza-harremanak, ea... argi utzi zituzten eta guzti hau agertuko da bertan. Aipatu beharra dago, Europa mailako ipuinetan alderdi eterikoa ere askotan agertzen dela, hau da, maitagarriak, iratxoak, ipotxak, ea... eta hauen bidez ere hurrek ia egunero sentitzen dituzten sentimendu, emozio eta balore ezberdinei buruzko informazio asko jaso dezakete eta bereziki bizipen ederrak izateko aukera ere izanen dute.

#### 3.1.1.1. Zeltiar ipuinak

Ipuin hauekin, Jainko ezberdinekiko zuten lotura ikus daiteke. Zeltiar ipuinekin, hurrek ikus dezaketen alderdietako bat zeltiar kulturaren Natura bihotz-bihotzez bizitzen zutela da eta hortaz, Naturako elementuekiko erabateko errespetua oso barneratuta zeukatela.

Bestetik, lau erreinu bereizten zituztela: mineralena, bejetalena, animaliena eta gizakiena, eta dena eboluzionatzen jarraitzean oinarritzen zela. Horretarako, eta esate baterako gizakien erreinuan eboluzioaren araberako hiru maila zeuzkaten: bardoak, vadoak eta Druidak edo Druidesak.

Hortaz, ipuin zeltiarrekin hurrek ideia guzti hauek deskubritu edo ezagutu ditzakete euren jakiturarako lagungarri izanez.

#### 3.1.1.2. Euskal ipuinak

Ipuin hauekin, mitologiaren mundura erraz salto egiteko aukera izanen da beti. Iraganean zehar bidaiak egin eta bertako historia hobeto ulertzen laguntzeko.

Leku eta pertsonai ezberdinekin gertatuko gertaerak ere ezagutuko dira eta hauen bidez, balore zein emozio ezberdinak ezagutu eta landuko dira.

#### 3.1.1.3. Greziako ipuinak

Hemen ere mitologiaren bidez eta Grezian bizitutako pertsonai ezagunen bidez, haurrek heziketa emozional bat jasoko dute. Kultura hau oso aberatsa izan zen gizakien baloreak ezagutzeko helburuarekin murgiltzean ipuin hauen irakurketan.

#### 3.1.2. Afrikako ipuinak

Afrikako ipuinekin, bereziki Naturarekin duten konexioaren bidez ikas dezakete haurrek balore, sentimendu eta emozioen munduan murgiltzen. Era berean, generoaren eta arbasoekiko errespetua agertu ohi da. Izenek ere arreta deitu ohi diete haurrei eta Afrikan izenei ematen dieten garrantziaren zergatiak ere asko irakasten die umeei.

#### 3.1.3. Ozeaniako ipuinak

Normalean hemengo haurrentzat kontinente hau ezezagunagoa egiten da eta bertako ipuinekin lan egitea ere haurren garapenerako lagungarri izango da. Aborigenen edota maorien bizipen eta ohituretan murgildu ahal izango dira haurrak eta hortaz, irlek eurentzat duten garrantzia transmitituko da, euren elikaduran, musikan eta hainbat arlotan duen eragina ikusiz. Hemen, gorputzarekin adierazten duten guztia ere ikusten da eta nola funtzionatzen duten klan gisara ere.

#### 3.1.4. Amerikako ipuinak

Amerikako ipuinei dagokionean, aipatu hemen ere Naturak berebiziko garrantzia duela eta indijenek barne-barnetik bizitzen dutela alde hau. Hortaz, Naturarekiko errespetua, gaizkia eta ongia, transformazioak, ez baztertzeari buruzko ipuinak, ea... bezalako baloreei buruzko informazioa jasoaz.

### 3.1.5. Asiako ipuinak

Amaitzeko Asia kontinente zabalari buruzko ipuinen bidez, ongia eta gaizkiari buruz ere ikasiko dute eta hau oso alde garrantzitsua da euren bizitzetarako. Alderdi espirituala anitz agertzen da kontinente honetako ipuinetan eta baita baloreetan oinarrituriko informazioa ere. Aldi berean, helduei zaien errespetua ere agertzen da eta hau hurrek ikusteko eta sentitzeko oso beharrezkoa da, era honetara, eskertzearen gaia lantzen baitute eta konszientzia hartzen baitute hurrek arbasoen lanaren eta ibilbidearen eragin itzela dutela.

### 3.2. Baloreak, sentimendu eta emozioak

Alor honetan lan egiteko, ezinbestekoa da ongi ezagutzea kontzeptu bakoitza zer den. Horretarako, buruan izan behar da gizakion zerebroak zer nolako lana egiten duen eta zer nolako antolaketa daukan. Kontuan izan behar dugu gizakion zerebroa bi hemisferioetan banatzen dela eta ezaugarri ezberdinak dituztela. honela bada, ezker hemisferioan, logika, memoria, arrazonamendua eta hizkuntza idatzia eta ahozkoa lantzen dira nagusi eta eskuin hemisferioan emozioak eta sentimenduak, ausa, formak eta ereduak, sormena, adierazpen artistikoa, intuizioa.

Irlanda bezalako herrialde batean adibidez, *Hezkuntzaren Osasuna* deitzen den ikasgaia izaten dute eta bertan lan sakona egin ohi da osasunarekin, bere orokortasunean. Baloreak lantzen dituzte eta haur eta nerabeei erakutsi ohi zaie nola bideratu euren bizitza ahalik eta era osasuntsuenean eta zoriontsuenean bizitzeko. Bestetik, Asia bezalako kontinente baten aldetik, metafisikari buruzko mezu asko ematen dira. Esate baterako Indian ehundaka Jainko eta Jainkosa ezberdin dituzte eta bakoitza baloreen batekin, Naturako elementuren batekin edota gizakion kalitatearen batekin lotuta dago dute. Honelako ikasgai baten barruan adibidez, guztiz borobilduko litzateke informazio eta honen inguruko lan guzti hau zeren osasunaren baitan osasun emozionala ere badagoelako.

Baina gure hezkuntza sisteman kokatuta eta bihotzaren eremuan ahal den bezala sartuz, lehenik eta behin emozioak sentimenduak baina laburragoak eta biziagoak direla jakin

behar da. Emozioek lotura zuzena daukate inpultsibitatearekin. Sentimenduek aldiz, denbora gehiago irauten dute eta apalagoak dira. Sentimenduak sutilagoak dira. Bestetik baloreak, etika eta moral-printzipioak dira, kalitatearekin lotuta daude, zerbaiti edota pertsoneri ematen zaien balioa, bi era ezberdinetan; era baikorrean eta baita era ezkorrean ere.

### 3.2.1. Maitasuna

Egungo ikasleek maitasuna bikotearekin lotzen dute normalean eta ideia guzti hauek argituko zaizkie. Esate baterako, maitasuna musikarekiko, arbasoekiko, leku batekiko, ea... senti daitezke. Maitatzeko gaitasuna zer den erakutsiko zaie eta maitasuna nola adierazten dugun, norekin, non, ea. Honetarako, sentitzeak duen garrantzia ikusi behar da eta honek esan nahi du ezin garela beti intelektuan murgilduta egon eta bihotzetik bizitu behar dela edozein momentu sentitzeko gaitasuna bizitzeko

### 3.2.2. Autoestimua

Txiki- txikitatik euren burua estimatzen eta euren buruarekiko konfidantza izaten ikasten badute, hau euren izaeran barneratua geratuko da eta hurrei oreka emozionala ekarriko die honek. Egunerokotasunean hurrek egoera anitz izaten dituzte non euren buruarekiko ze estimu eta konfidantza maila duten ikusiko den eta honetan laguntzeak berebiziko garrantzia dauka euren orainaldirako eta baita euren geroan bizituko dituzten egoera ezberdinetarako ere. Zientzia mailan lan anitz egiten ari dira haurdunalditik hasita hurrek sabelean bizitzen dituzten emozioek zein eragin duten eurengan, eta datuen arabera, eragina oso zuzen et handia da. Honi buruzko informazioa Gradu Bukaerako Lan honen eranskinean aurkituko dugu.

### 3.2.3. Erruduntasuna

Oso ohikoa da hurrek erruduntasuna sentitzea bai lagunekin bizitzen dituzten egoeretan, ikastetxean, kalean, anai-arrebekin, familian, eskolaz kanpoko jardueretan, ea... Erruak min asko egin dakieke hurrei euren egunerokotasunean eta hau ohitura bilakatuz gero, euren bizitza osoan ere. Normalean, erruduntasun sentimendu hori hitzez ez adieraztearekin lotuta doa gainera eta orduan, arazoa larriagotu egiten da. Hau

dela eta, gai garrantzitsu honi buruzko ipuinak landuko dira hurrek errua sentitzen dutenean edota haur batek edo batzuk beste bati errudun sentiarazten diotenean egoera horiek ulertzen eta bideratzen erakusteko. Alderdi hau lantzearekin, askotan Bullying kasuak ekidin daitezke, hau da prebentzio-lan bat egin daitekeelako eta egin behar delako haurren ongizatean eta familiei eta gizarteari begira lan on bat egin dadin.

#### 3.2.4. Haserrea

Haserrea emozio naturaltzat hartzen den momentutik, gure ikaskuntzarako oso baliogarria dela ikusiko da. Hurrei haserrea bezalako emozio bat ez bizitzen erakusten bazaie, emozio hau oso erraz bizitu ogi dela konturatu beharra dago eta ekiditean ez oinarritzeaz gain, emozio honengandik ikasten erakutsiko da. Emozio honek, barruan duguna behar den momentuan ateratzen, zein modutara ateratzen, ea...ikasiz

#### 3.2.5. Enpatia

Besteen lekuan jartzen irakastea ezinbestekoa da gizarte honetan eta orokorrean kontinente guztietan. Gizakiak ez badu besteen lekuan jartzen ikasten, zaila izango da gudak bukatzea, iraganeko zauri anitz sendatzea, izaera eta gertakari asko ulertzea eta hitz batean, gizakia bera ulertzea. Hau gizarte batentzat alderdirik garrantzitsuenetako bat denez, hurrei ipuinen bidez enpatikoak izaten erakutsiko zaie. Hemen heriotza nola bizitzen dugunaren ideiaz ohartu behar gara.

#### 3.2.6. Dolua

Gai honek ez du ezer ikustekorik nola bizitzen den kultura bakoitzean eta kultura ezberdinen artean familia bakoitzean ere. Heriotza tabuarekin, beldurrarekin, estaltzearekin, ea... bizitzen badu helduak, hurrak ere horrelaxe jasoko du eta horrela bizituko du. Aldiz Heriotza, naturaltasunez bizitzen bada, min sentitzea normaltzat hartuz, sentitzen dena adierazteko ohitura izanez, ea... hurrek ere era honetara bizituko dute. Horregatik eta orokorrean emozio guztiekin bezala, baina zehazki gai honekin, gurasoekin ere lan egitea garrantzitsua da hurrek jasotzen dituzten mezuak ahalik eta orekatuenak izan daitezen. Gainera, honi erantsi behar zaion ideiei garrantzitsu

bat zera da, dolua ez dutela soilik heriotzarekin bizitzen baizik eta baita ethez aldatzen direnean, gurasoak banatzen direnean, lagunak bat kanpora joaten denean bizitzera, ea... Honelako egoera zailetan, ipuinek sekulako lana egiteko aukera ematen dute.

### 3.2.7. Tristura

Anitz bizitzen duten emozio bat da tristura eta hau lantzeko badira ipuin ugari. Tristuraren bidez asko ikas daiteke; negar egiten, hitzez adierazten, egoerak ulertzen, ea...luze bat. Tristura bezalako emozio bat sentitzen oso ohikoa izaten da estaltzea edota ekiditea. Aldiz hurrei, bizipen natural bat dela eta bizitzan egoera ezberdinek triste sentitzera eramaten gaituztela normaltasunez bizitzen erakusteak askatasun handia ematen die hurrei. Hemen oreka bat izaten erakustea oso lagungarria da, batetik, emozio hau ez estaltzeko eta bestetik emozio honekiko menpekotasunik gabe bizitzen ikasteko.

### 3.2.8. Barkamena

Sentimendu hau bihotzetik bizitzen erakusteko aukera ematen da erabat. Askotan mentalki edo intelektualki barkatzen erakusten zaie baina hau era mekaniko batez egiten dute maiz. Benetan egiten dutenean, ulermen eta empatia prozesu bat eman dela ikusten da eta hau izango da barkamena integrazteko era bakarra eta egiazko barkamen honekin errespetuaren bidean pauso handiak ematekoa. Barkamen hau norberarekiko, bi pertsonen artean, familian, kalean, ea... bizitzen ikasteak gero hau eremu zabalagoetara eraman daitekeela ere ikasiko dute (talde ezberdinen artean, lantokietan, auzoetan, lurralde ezberdinen artean, ...) eta guzti honek duen eragin itzela gizarte batean eta mundu osoan ere. Gizarte honetan pertsona arduratsuak izaten ikasteak geroari begira, hazi ederrak uztea ekarriko du eta muturreko indibidualtasunarekin apurtzea.

### 3.2.9. Zoriontasuna

Sentimendu hau oso aberatsa da hurrekin lantzeko. Zoriontasunak definizio oso ezberdinak izan ditzake eta aukera anitz daude bertan. Batzuk zorionsuak izan daitezke maitatuak sentitzen badira beste batzuek materialari emanen diote garrantzia, besteek

eskolan emaitza onak ateratzeari, ea... luze bat. Aldi berean, munduko egoera ezberdinak eta hurrek bizitzen dituzten errealitate ezberdinak ezagutzeko aukera zoragarria da eta sentimendu honekin batera, beste hainbeste sentimendu, emozio eta balore ere atera daitezke beti.

#### 3.2.10. Beldurra

Haurren lekuan jartzea derrigorrezkoa da hain garrantzitsua den emozio hau lantzen ikasteko. Hortaz, hurrek izaten dituzten beldurrak ezagutuko dira eta hauen gaineko lana egitea benetan ederra izango da. Beldur batek guztiz mugatu dezake haur bat bere egunerokoan; eskolara joateko, lagunekin egoteko, iluntasunean bizitzeko, aldaketen aurrean, ea.... Eta aldiz indar eta ziurtasun handia senti dezake haur batek beldur bat eraldatzen duenean. Gainera, helduak haurrari eraldaketa hau egiten laguntzen dionean, haurra babestua sentitzen da baina era berean, bere garapenerako garrantzitsuak hain diren autonomia, autoestimua eta esfortzua bezalako aldeak garatzen ditu, eta beldurrekin mentalki baikortasunez bideratuz gero ze lan handia egiten den ikasiko dute.

#### 3.2.11. Aniztasuna, onarpena

Balore honekin lotuta, lan anitz dago egiteke hezkuntzaren munduan. Lehenik eta behin, epaitzeko joera hori eraldatzeko lan egin behar da gero aniztasuna errespetatzen jakiteko. Hortaz, denek errespetu bera merezi dugula eta ezberdintasunak aberasteko ideia garatzea oso lagungarria izango da ikasgeletan aniztasuna naturaltasunez bizitzeko. Maila honetako lan bat egiten denena, argi ikusten da ze ongi barneratua duten hurrek ezberdintasunen aurrean onarpena eta errespetu sakona sentitzea, eta hau gizarte mailan zabaltzeak, mundu duin bat sortzera eramango gaitu.

#### 3.2.12. Berdintasuna

Errespetua gauza guztien gainetik dagoen balorea dela ikasteko. Honen inguruko ipuin anitzekin lan egin daiteke hurrekin. Balore honekin generoa, izaera ezberdinak, janzkera, edozein motatako joerak, jatorria, ea... lantzeko aukera zoragarria eta

nahitaezkoa. Era berean, Naturako beste elementuekiko berdintasuna erakustea ere, hau da, animaliekiko, landareekiko, zuhaitzekiko, ea... Argi izan behar da berdintasunik gabeko giroetan erasoak, zailtasunak, emozio gogorrak, ea asko egonen direla eta honek kalte handia egin dakiokela haur bati. Berdintasunak etika eta kontzientzia maila bat izatea eskatzen du eta honetan lagundu daiteke gisa honetako ipuinen bidez.

### 3.2.13. Ekintzen ondorioak

Egungo haurrek hau ongi ikastea izugarri behar duten ideia da. Edozein arlotan mugak ez ezartzeak orientaziorik gabeko mundu batean bizitzea ekarriko du eta honek zuzenezuzenean desoreka handi bat dakar. Jarrera nobleak, bihotzetik bizitzeak, ardura barneratzeak, ea... ondorio baikorrak ekartzen dituen bezalaxe, guzti hau alderantziz egiteak beste modu bateko ondorioak ekarriko dituela erakustea oso beharrezkoa da. Gauza guztietan bezala, lehenik eta behin eredu ona ematea ezinbestekoa izanen da. Ez da eredugarria izango esate baterako oihuka ez hitz egiteko eskatzea eta hau bera oihuka esatea. Gai honekin zerikusia duten ipuinetan besteak epaitzak dituen ondorioak bezalako mezuak landuko dira, hala nola, Ingalaterrako esaera zahar honek dioen moduan “behatz batekin seinalatzean, oroitu beste hiru behatzek zu seinalatzen zaituztela”.

### 3.2.14. Bakea

Ezinbestekoa da bakea norberaren barruan sentitzea eta edonon, edonorekin eta edonola sentitzen jakitea ere. Horretarako, haurrei lasaitzen ere erakutsi beharra dago, bakarrik bakean egoten eta era horretara besteekin ere bakean egoten. Norberak bakarka bizitzen duena gero kanpoan ispilu bat denaren ideiatik abiatuta, lehenasuna norberaren baitan bakea sentitzen laguntzeari eman behar zaio. Horretarako, egoera ezberdinak kudeatzen erakutsi beharko zaie, hala nola, frustrazioak, haserrea, beldurrak, lotsa, ea....

### 3.2.15. Harrokeria

Umiltasunaren aurkakoa, besteen gaintetik egoteko joera eta aldiz, guzti honen azpian konplexuak besterik ez egotea. Emozio hau bizitzen dutenean, itxuran besteen gaintetik



jartzen dira eta honek kalte handia egiten dio haur bati. Hasteko, errespetua faltatzen baitu eta bestetik, kanpora begira dagoelako, itxura bat ematean zentratuta, besteek ikusteko. Hortaz, barrura begiratzen erakustea oso beharrezkoa izango da haur batentzat horrelako egoeraren bat bizitzen duenean.

#### 3.2.16. Naturarekiko errespetua

Naturatik gatoz eta Naturarengatik bizi garenaren ideia transmititzea. Hau dena eskerrarekin eta errespetuarekin guztiz loturik dago: elikagaiak; dauzkagun objektu asko egiteko materialak; elementuak (ura, haizea, lurra, sua); koloreak; musika; urtaro ezberdinek eskaintzen eta sentiarazten diguten guztia; animalien laguntza eta maitasuna; zuhaitzekin oxigenoa, egurra, edertasuna; harriak eta eraikuntza; ea luze bat...

#### 3.2.17. Lehiakortasuna

Gizarte honetan eta beste askotan hain ohikoa dena. Telebistan, kirol munduan, musikaren munduan, edonon ateratzen da lehiakortasunaren gaia. Honekin, desoreka emozional handiak etortzen dira, autoestimua jaitea, frustrazioak, harrokeria, besteei gaizki edo okerrago joatea desiratzea, ea... bezalako sentipenak. Hau zeharo ekidin beharrezkoa da aniztasuna, errespetua eta elkartasuna bezalako oinarrizko baloreei lehentasuna ematen badiegu haurrak heitzeko orduan. Lan asko dago hemen egiteke, denak berdinak garela ulertzeko eta bizitzeko eta mezu lehiakor guzti horiek eraldatzeko. Hau oso arlo sotila da gainera, etiketak jartzeko ohitura handia dagoelako beti eta haurrek, esponjak bezala dena xurgatzen dutelako, jasotzen dituzten etiketa horiekin identifikatzen hasten dira eta hau bere izaeran bilakatzen da gero. Hortaz, ekintzak aurrera eramatea eta lehiatzearen arteko ezberdintasuna landuko da.

#### 3.2.18. Gezurrak

Gezurren atzean gehienetan beldurra egoten da. Haur batek egia esateko arazoak sortuta dator gezurra eta honekin, egia esateak ematen duen beldurra hor dagoela ikus

dezakegu. Hemen, hurrei sentitzen dutena ez dela epaituko erakutsi behar zaie, bai hitzez eta baita eredu argiekin ere. Horregatik lan sakona egingen da hemen.

#### 3.2.19. Dibortzio edo banaketak

Hurrek asko sufritzen duten egoera da. Eurentzat gurasoak erreferentzia dira eta bikotea apurtzean, hurren estruktura erori egiten da eta hau ongi bideratzen erakusten jakin behar da. Horretarako, bere egoerara egokitutako lan bat egingen beharko da. Ikusi egin beharko da haurra haserre dagoen, barruan gordetzen dituen bere minak, erruduna sentitzen al den, besteekin parekatzen den erabat, ea... luze bat. Hemen, ipuinak oso lagungarriak izanen dira beti.

#### 3.2.20. Bakardadea

Era baikorrean bizitzen erakustea oso onuragarria izanen da, euren buruekin egoten ikasteko aukera izanen dutelako. Aldiz bakardadea sufrimendu gisara bizitzen dutenean, besteekin egotea merezi ez duelako sentitzen duelako, besteek ez diotelako taldean egoten uzten, ea... burubelarri sartu beharko da irakaslea guzti hau kudeatzen. Oso alor garrantzitsua da. Bakardadea norberarekin egoten ikasteko izan baitaiteke edota besteengandik aldentzeko, baztertua sentitzeko, besteekiko menpekotasuna sentitzeko, ea....

#### 3.2.21. Bihurrikeriak

Oreka bilatzen ez da lan erraza. Hurrek euren inozentzia mantentzea beharrezkoa da bizitza euren erritmora bizitzeko. Hortaz, bihurrikeriak egiten dituztenean, ongi behatu beharko da arauak apurtzeko egiten ote duten edo ez, xalotasunetik hasita egiten duten edo ez, ea... ikusteko.

#### 3.2.22. Gorrotoa

Guztiz ekidin beharreko emozio gogor bat da hauxe. Pertsona bat gorrotoa sentitzen egoten bada denbora baten ostean, bere gorputzak ondorio batzuk izanen ditu eta hau dena hurrei erakustea ezinbestekoa da, kontzientzia emozional bat izan dezaten eta

kontzientzia fisiko bat ere. Ohar daitezten alor emozionalean bizitzen dena gorputzean isladatzen dela gero.

### 3.2.23. Adopzioa

Arreta handia jartzea eskatzen dute adopzioan emaniko haurren kasuek. Eurengan desoreka emozional handiak ikusten dira maiz eta laguntza handia behar izaten dute normalean. Gainera, adopzioan hartutako familiarekin eta aldi berean, tarteka ikusten dituzten euren senide biologikoen artean egotean, emozionalki bizipen sakon asko izaten dituzte eta hau dela eta, ipuinekin lan zoragarriak egin daitezke alor honetan. Adopzioa harturiko haurrak bere egoera ongi bizitzen laguntzeko eta ingurukoak ere egoera horretara egokitzen jakiteko ere. Gainera askotan eskatzen dute haurrek horrelako egoerei buruzko informazioa, euren barruan ideiak antolatzeke eta ikasi egin nahi dutelako nola bideratu honelako egoerak. Haurren bat aurkako jarrerarekin egonez gero, sakon sartu beharko da irakaslea honen inguruko lan bat egitera.

### 3.2.24. Hezkidetza

Rol ezberdinen lanketa eginen da hemen. Ipuinen bidez lantzea zoragarria da. Hau txikitatik ikastea oso garrantzitsua izanen da gerora begira ongi barneratua izateko. Historian zehar denbora askoan zehar jarri izan zaizkie rol batzuk emakumeei eta beste batzuk gizonezkoiei, eta hauek eguneratuak egon beharko dute, errespetuan oinarrituak eta elkarlaguntzan. Ez dago zertan gizon eta emakumeen artean beti lehian egon beharrik, hau guztiz ekidin beharrekoa da bi generoen artean bakea eta oreka egon dadin.

### 3.2.25. Gurasoekiko harremanak

Haurren gurasoekiko erlazioa haurdunalditik hasten dela azpimarratu beharra dago. Amaren sabelean dagoenetik, haurrak sentimendu eta emozio ezberdinak bizitzen ditu. Errusian, Holandan, Ingalaterran, ea... egin diren eta egiten ari diren ikerkuntza garrantzitsuen arabera, une horretatik hasita haurra bere gurasoekin erlazio bat finkatzen hasiko da eta hau gerora ere agertuko da, haurrak adin gehiago duenean hain

zuzen ere. Ikerkuntza zientifiko horien arabera, argi geratzen ari da haurrak sabelean dagoenetik nabaritzen duela bere jaiotzea desiratutako nahi bat izan den edo ez, gurasoek berarekiko duten arreta edota bikoterik gabeko ama bat haurdun dagoenean ere, ama horrek sentitzen duen guzti-guztia. Hau oinarritzat hartuta, hortik aurrera haurdunaldian bizitutakoaren ondorio asko ikusiko dira gurasoekiko harremanean. Adibidez, eta emaitza zientifiko horiek diotenaren arabera, hiperaktibitate kasu gehienak haurdunaldian estresa sentitzeagatik etortzen omen dira. Hortaz, euren arteko harremanean honek ondorio batzuk izanen ditu. Aurrerantzean, helduaren aldetik arreta handia edukitzea eskatuko du honek beraien arteko harremana orekatua izateko, mugak onartzen ikasteko, haurrek gurasoenganako errespetua izateko eta alderantziz, ea....

#### 3.2.26. Irudimena, fantasia

Haurrengan berezkoa den alderdi bat da fantasia edo irudimena. Garapenaren fase honetan, oso biziki sentitzen eta esperimendatzen dute irudimena, baina denbora aurrera joan ahala eta askotan, sare sozialen, komunikabideen eta helduen eraginez, galtzen hasten dira. Beste era bateko munduak edo egoerak sortzeak haur baten bihotzari eta buruari berebiziko askatasuna ematen dio sortzeko eta sentazio ezberdinak bizitzeko. Gainera, buruak gaitasun mota ezberdinak ditu eta gaitasun mota hauek garatzeak pertsona bati aberastasuna ekartzen dio eta pozik bizitzea askoz ere errazagoa egitea, gaitasun guzti hauek ongi bideratzen badira eta ez badira erabiltzen mina egiteko edo okertzeko. Haurraren baitan dago irudimenari lotuta egotea eta lotura honetaz gozatzea.

#### 3.2.27. Lo egitea

Haurrek euren buruan arazoren bat dutenean; beldurrak, kezkak, erruduntasun sentimendua, ea... lo egiterako orduan azaldu ohi da askotan. Zailtasunak izaten dituzte eta gero hau dena kate bat izaten da; lotara joatean gaizki pasatzea, berandu lokartzea, atsedeen ez hartzea, eskolan egotea modua aldatzea, erlazioak, ea... Batez ere Lehen Hezkuntzako 1 zikloan ematen da baina gerora ere LH osoan zehar eman daitezke lehen aipatu bezalako egoera askoren bidez.

### 3.2.28. Lotsa

Besteek esango dutenari oso irekiak egotean sentitzen den emozioa. Lotsarekin haur bat guztiz blokeatu daiteke eta era honetara beldurrez josi. Hemen ausardia lantzen lagunduko da, norberak bere buruarengan sinisten eta indarra ematen norberak bere burua estimatzeari eta laguntzeari eta ez besteei begira egoteari. Menpekotasun erlazio eta egoera anitz ekiditen lagunduko da honela eta hau ezin beharrezkoagoa da pertsona bat aske senti dadin. Lotsarekin adierazpena mugatu egiten da eta sormen maila handia izanez gero, hau guztiz estalia gera daiteke. Honelako egoerak ez ematen laguntzeko lotsa ipuin ezberdin eta bikainen bidez landuko da.


#### 4. ESPARRU PRAKTIKOA

Ipuinen bidez landu daitezkeen emozio eta baloreen heziketaren ibilbideari benetan duen garrantzia emanez, Unibertsitateak hasi eta ikastetxeetarainoko ibilbidea izango da alde praktiko honetan sartuko dena.

Unibertsitateari begira, plangintza bat proposatuko da irakasleek euren ikasleekin ildo honetan lan egiteko eta era honetara ikasleek benetako prestakuntza lagungarri bat jaso dezaten. Ikasleek jaso beharreko formakuntzari garrantzia emanen zaio, guzti honek gerora izan ohi duen eraginari erreparatuz.

Ikastetxeari begira ere, alde batetik irakasle eta ikasleekin aurrera eramateko alderdia landuko da eta bestetik, gurasoekin egingo dena, Guraso Eskolen garrantzia bultzatuz. Kalitatezko hezkuntza eredu bat aurrera eramateko Guraso Eskolak tresna garrantzitsu eta guztiz beharrezkoak direla azpimarratuz.

Hortaz, hezkuntzaren bide honetan, hurrengo estruktura hauen balioa ezin handiagoa dela ikusiko da. Egoeren arabera, piramidearen goialdean gurasoak, haurrak edo ikastetxea egonen dira, baina, gainontzekoak forma bera izanen du, hau da, hiru figura horien arteko lotura zuzena eta bi norabideetan oinarrituriko elkarrekintza:



Hiru esparru hauetan banatuko dugu alde praktiko hau eta lehengo esparrua Unibertsitatea izanen da. Azken finean, oinarritzko lana esparru honetan fokalizatzen bada, hemendik aurrera gainontzeko guztia aurrera aterako da. Ikasleek formazio hau Unibertsitatean jasotzen badute, gero ikasi dutena ikastetxeetan aplikatzeko gai izango dira eta lan hau eginez gero, haurrengana eta euren familiengana iritsiko dira.

Hemen dago alderdi praktiko honen gakoa, ibilbide horretan lan egitea gerora guzti honek fruituak eman ditzan. Unibertsitatean ikasleek ez badute hain garrantzitsuak diren ipuinak bezalako tresnen inguruko prestakuntza landu bat jasotzen, ezer gutxi egin ahal izango dute gero euren ikasle eta familiekin. Egin dezaketen lana euren kabuz egingo dutena izanen da beti, baina ez Unibertsitateak jasotako formazioak eskainitakoaren arabera. Baina alderdi anitz hobetu daitezkeenez beti, atal praktiko honen bidez, proposamenen inguruko plangintza bat azalduko da hobekuntzaren aldeko lan bat eginez.

Argi dagoena da hezkuntza oso alor konplexua dela eta bere edozein alderdi kudeatzea eta bideratzeak oso lan sakona egitea eskatzen du beti. Hortaz, atal honen bidez hainbat ideia ikusiko dira eta aipatu bezala, hobekuntzaren bidean eskaintzen diren ekarpen eta planteamendu gisara.

#### **4.1 Unibertsitatean**

Unibertsitatea, gizarte batek duen espazio ezin garrantzitsuago bat da. Bertan egin beharreko lana oso handia da beti eta ardura izugarria suposatzen duena. Hein batean, eta gizarteari begira, gizarte baten norabidean eragin nabarmen bat egingo duen espazioa da.

Esan dezakegu gizarte batentzat Unibertsitate batek sehaska bat sinbolizatu dezakeela, eta adituek diotenaren arabera bezala, haur bati bere garapenaren hasiera-hasieratik bizitutakoak bere bizitzan zehar ondorio batzuk eragingo dizkion bezala, Unibertsitatean formatzen diren ikasleek ere gizarte bati eragin zuzena egingen diote. Ezberdina da jasotzen den formazioa horren arabera gero ikasle horiek lan mundura sartzean egin dezaketen lan eta eragin mota. Ikaskuntza esanguratsua jaso denean, guztiz parte-hartzailea, sortzailea, analisiari eta izpiritu kritikoa bultzatzen duena edota oroimenean oinarrituriko era batean ikastera bultzatzen duena guztiz aurkakoa izanen da gizarte batentzat.

Ikus daiteke Unibertsitate ezberdinek duten kalitate mailaren arabera zer nolako islada egiten duen gero guzti honek gizarte baten arlo ezberdinetan. Baina Gradu Bukaerako

Lan honen arabera, Irakasletza Graduiko ikasleetan oinarrituko gara eta Unibertsitateak irakasle izango diren ikasleengan egingo duen eraginean.

Zentzu honetan, NUP-ek Hego Ameriketako hainbat Unibertsitateekin dituen hitzarmenen arabera eskaintzen diren bekekin, NUP-eko ikasle askoren ondorioa izaten da bertako Unibertsitateetan izugarri bultzatzen dela ikasleen parte-hartzea, hezkuntzari buruz hitz egiterako garaian. Ikasteko era ezberdina da, hau da, ez zaio hainbesteko garrantzia ematen informazioa memorizatzeari eta aldiz garrantzia handia ematen zaio ematen den informazioari buruz solasteari, eztabaidatzeari, hobekuntza lanetan jarduteari, analisiak egiteari, emaitza eta ondorio ezberdinak aztertzeari, ea. Era berean, eta ondorioetan ikusiko den bezala, Finlandia edo Korea bezalako lurraldeetan hezkuntza aurrera eramateko daukaten modua eta dauden ezberdintasun handiak ere ikusiko dira.

Hortaz, eragin zuzena izanen du Irakasletza Gradua ikasten ari diren ikasleek ipuinen inguruko prestakuntza garrantzitsu bat jasotzea ezinbestekoa da gero hezkuntzaren munduan lan egiteko. Lehenik eta behin, Unibertsitatean jaso beharko da formakuntza hau zeren bestela, ikasleek ez dute oinarri sendorik jasoko. Unibertsitatearen helburu garrantzitsuenen artean ikasleen formazioaren kalitateak maila altua izatea denez, askoz osatuagoa egon beharko luke alderdi honek. Ipuinek haurrengan duten eragin itzela dutela jakinda, Unibertsitatean beste mekanismo batzuk jarriko genituzke abian.

Hezkuntzaren munduan, eta lan honen arabera Lehen Hezkuntzan oinarrituz, ezinbestekoa da jasotzea gero haurrei ipuinen munduan sartzen laguntzeko eta ipuinen bidez euren garapenean laguntzeko.

Unibertsitatean, Irakasletza Graduiko ikasle izateagatik bakarrik, derrigorrez jaso beharko litzateke lehenik eta behin, ipuinak nola kontatzearen ikaskuntza. Gradu honetako ikasleek Literaturaren ikasgaietan, denbora bat eman beharko dute ipuinak kontatzeko ahotsaren erabilerari buruz ikasteko.

Ikasleak Unibertsitateak ezagutza guzti hau jasota eta kenduta ateratzeak, neurri handi batean, ziurtatu egingen du haurrek heziketa emozional on bat jasoko dutena eta hau ipuinen bidez egitea izanen da modu garrantzitsuenetako bat. Hortaz,



Ipuinen bidez, haurrak izaera ezberdinekin erraz identifikatzen dira eta eurek sentitzen dutena sentitzeko gaitasuna izatea, enpatia izanez eta gero euren lekutik abiatzen ikastea ezin lagungarriagoa izan behar du. Emozio-adierazpenaren aurrean berdintasuna erakusten ikastea ere oso garrantzitsua da, hau da, emozio eta sentimendu guztiek anitz erakusten dutela eta ez direla zertan emozio zehatz batzuk ekidin behar, esate baterako beldurra, tristura, ea. Hurrei guzti horrekin ikas daitekeen azaltzea guztiz lasaigarria da eurentzat eta bizipenak naturaltasunez bizitzen ikasten dute horrela.

*Irudiek* bidez ere oso argi ikusten dute pertsonaiek egiten dituzten keinuen adierazpenak eta asko ikasten dute guzti hau behatuz. Hurrek honela, detaile askoz ohartzen dira eta hau euren ikaskuntza eta garapenarentzat oso aberasgarria da beti.

Honi lotuta, esan beharra dago ilustrazioa eta testua edota pertsonaiek sentitzen dituzten sentimendu eta emozioak bat etorri behar dutela. Bertan koherentzia egon behar du zeren haurrak nahas daitezke bestela.

*Ahotsa* ere tresna garrantzitsu bat da informazioa, emozioak transmititzeko orduan. Hortaz, ikasleek ahotsa nola erabili ikasi egingo dute, praktikaren bidez, ariketa ezberdinen bidez. Ipuinak irakurtzerakoan, badaude momentu zehatz asko non irakasleak ipuinak kontatzean, gertaera zehatz bati garrantzia emateko ahotsa igo edo jaitsi dezakeen, edota ahotsa aldatu, onomatopeiak erabili, etab.

Ipuinak kontatzen ikasterakoan, beste alderdi garrantzitsu bat *gorputzaren adierazpena* da. Graduako ikasleek ikasi egin beharko dute eskuekin enfasia ematen ipuinetan gertatzen diren egoerei, hurren arreta mantentzeko mugimendu ezberdinak egiten, ipuinari mugimendua emanez, etab.

Ezinbesteko den beste alderdi bat emozioen eta baloreen inguruko *ikaskuntza sakon bat* jasotzea da. Ikasleek ongi ezagutu beharko dituzte hurrek oro har bizitzen dituzten sentimendu, emozioak eta baloreak, eta eurekin landu behar direnak. Bertan maitasuna, haserrea, erruduntasuna, ulermena, enpatia, dolua, tristura, amorrua, barmakena, zorientasuna, beldurra, bakea, adierazpena, jelsia, lotsa, urduritasuna, konfidantza

falta, ... bezalako balore, sentimendu eta emozio ezberdinei buruzko ezagutza jasoko da. Aniztasuna, hezkidetzeta, ea... bezalako arloak guztiz eguneratuak egon beharko dute zeren ez da berdina duela hamar urte hurrek izaten zituzten bizipenak eta gaur egun izan ohi dituztenak. Gizarte batean dena aldatzen doa, eta gaur egun geroz eta abiadura biziagoan. Hortaz, IKT-ek maila sozialean gertatzen diren gertakariak, familien antolaketa anitzek, ea... Irakasletza Graduoko ikasleek ikasi beharrekoa guztiz eguneratua egotea berebizikoa da.

Honekin lotuta eta esan bezala, ikasleek *ongi ezagutu* beharko dituzte emozio eta balore ezberdinak eta euren gainean egin beharreko lana. Badakigu ikasi, gehien bat praktikaren bidez ikasten dela, baina praktikan jartzeko orduan tresna anitz izatea edo tresna gutxi batzuk izatea ez da gauza bera izango hurrei erakusteko eta euren garapenean laguntzeko orduan. Hortaz, hemen, ikasleek emozio ezberdinak landuko dituzte euren klaseetan. Heziketa emozional bat jasoko dute hortaz, euren bizitzan eta euren lanean gerora erabiltzeko izango duten altxor bat hain zuzen ere.

Zenbait ikasgaitan tarteka atera egiten da Howard Gardenerren (Pennsilvania, AEB, 1943, Psikologoa) Adimen anizkunaren teoriaren ideia, baina gero era praktikoan lantzerako orduan, maiz ahanzten da alderdi garrantzitsu hau. Eta gaitasun hauek duten pisuari so eginez, esparru honetan zehazki gaitasun emozionalarekin egingo da lan hau.

Gardnerrek azalduriko gaitasun emozionalaren atal honetan, Rafael Biskerra, Bartzelonako Unibertsitateko Orientazio Psikopedagogikoko Katedradunak eta Adimen Emozionalari buruzko Master eta Graduondoko ikastaro batzuen Zuzendariak dioen bezala, gaitasun honetako lehen alderdia kontzientzia emozionala da, bai norberarena eta baita besteena ere, eta jarraian bizitzarako eta ongizaterako gaitasunak, erregulazio emozionala, gaitasun soziala eta autonomia emozionala.

Gaitasun honetan hurrekin lan sakon eta esanguratsu bat egitearen garrantzian kokatuz, Biskerrak azaldu bezala, hurrek autogestio pertsonala landuko dute mikrogaitasun ezberdinak aurrera eramaten ikasiz eta baita oinarrizko trebetasun sozialen jabe izaten ikasiz ere. Bestetik, emozioaren, kognizioaren eta jokabidearen loturaz jabetzea ere erakusten zaie eta era berean, bizitzaren alor ezberdinetako

---

erronkei aurre egiteko jarrera arduratsua izatea ere, esate baterako norberarekin, aisialdian, familian, eskolan, kalean, ea...

Hurrekin *ulermena lantzea* beste alderdi garrantzitsu bat da. Horretarako, Gradu ikasleei erakutsi eginen zaie nola landu ulermena hurrekin. Ipuin bat irakurtzean, hurrek bereziki sentitu egiten dute ipuina, eta sentitu duten hori identifikatzen eta ulertzen jakiten erakutsiko zaie. Baina ulermen linguistikoak ere bere lekua izan beharko du. Hemen, ezagutzen ez dituzten hitzak ezagutzen laguntzeko lana egingo da, euren hiztegia aberasten lagunduz eta euren ezagutza zabalduz. Era berean, ideien ulermena hurrekin nola landu ere ikasiko da.

Beste alderdi garrantzitsuetako bat *arreta* da. Hurrek, normalean mugimendua behar izaten dute, eurentzat zaila izaten da orduak igarotzea geldirik zeren euren prozesu biologikoei kasu egiten diete eta euren garapenerako eta bizitzarako mugimendua behar dute. Hurrek, eta orokortasunez hitz eginez, kuriositatea pil-pilean izaten dute eta horregatik euren arretak naturala den bezala muga bat izanen du. Hala ere, alderdi natural hau alde batetara utzita, gaur egungo haurrak duela hainbat urteetatik hona, askoz ere estimulu gehiago dituztela ikusten da eta horretarako arretaren lanketa bat egitea ere ezinbestekoa suertatzen da hurrekin lan egiterako orduan. Hortaz, hemen Gradu ikasleei haurrak lasaitzeko ariketa ezberdinak egiten erakutsiko zaie eta tresna ezberdinak erabiliko dira horretarako. Arnas ariketak, begirada objektu zehatzetan enfokaturik, luzaketa ariketa errazak eginez, ea...

Hau guztia Unibertsitatean lantzea oso beharrezkoa da zeren gerora begira, irakasle izango diren ikasleek, praktika hauen bidez, asko ikasiko baitute *adierazpenaren* inguruan eta hurrengana askoz errazago iritsiko dira. Azken finean, haur batek berehala nabaritzen du ipuina kontatzen ari den pertsona gogotsu ari den, ipuina sentitzen duen edo ez, zeren hurren sentsibiltate maila oso altua eta berehala sentitzen dute dena.

Ipuinekin alderdi ludikoa ere landuko da eta ideia honen helburua *ongi pasatzea* izanen da. Guztiz ekidin nahi den alderdia izanen da beti hurrek ikasteko ilusioa eta gogo galtzea, eta hortaz, ikaskuntza prozesua, prozesu aspergarri eta pisu batean bilakatzea.

Honekin batera, *haurren mundu magikoa* ere landu nahi da. Haurrek duten irudimena eta fantasia estimulatzea ezinbestekoa da euren garapenerako. Aurretik aipaturiko ideian oinarrituz, haurrentzako ikaskuntza ez bada esanguratsua euren alderdi magikoa itzaltzen lagunduko zaie eta hau hezkuntzaren porrot bat bezala hartu beharko litzateke. Haurtzaroan, era natural batez bizitzen duten alderdi hau garatzen eta mantentzen lagunduko zaie ipuinen bidez.

Badago beste alderdi bat, non alderdirik garrantzitsuenetako bat dela esanen dugun eta hau *etika* da. bertan baloreak identifikatzen lagunduko zaie eta irakaspen moral bat ere transmitituko zaie. Oinarri onak txikitatik barneratzen badituzte, izaki horiek euren bizitzetan eta maila ezberdinetan oreka izatea askoz errezagoa izanen da.

Izaki guztiek dugun beste alderdi bat espiritualtasuna da. Haurrek askotan egiten dituzte mota honetako galdera zein ideien adierazpenak, hala nola egia metafisiko eta filosofikoen ulermena eduki nahi dutela agertaraziz. “Zer da heriotza?”, “zertarako jaiotzen gara?”, “ba al daude beste mundu batzuk?”, ea... bezalako galderak oso ohikoak izaten dira eurekin konfidantza eta gertutasun giro batean solasteko orduan.

Bada lan terapeutiko bat ere ipuinekin egiten den lanean. Ipuinen bidez, egunerokotasunean sortzen diren gatazka eta zailtasunak era txukun eta sendagarri batean bideratu daitezke. Eman dezagun jelsia arazoak daudela ikasgelan. Egoera honetan, ipuinekin lan itzela egin daiteke haurrek lehenik eta behin euren identifikatzeko noiz ari diren sentitzen jelsia, ze ondorio ekartzen dituen jelsia sentitzeak, nola bideratu eta eraldatu daitekeen emozio hau gero eguneroko bizipenak atseginagoak, errazagoak eta goxoagoak izan daitezken.

Era honetara emozio eta balore guztiekin lan egin daiteke: haurren artean botere jokoak ematen direnean, bazterketa bultzatzeko joera duten haurrekin, askotan erasotzat hartzen diren jarrerak babesteko jarrera dutenekin, haurren artean ematen diren gatazken konponketekin, haurrek aldaketekiko beldurra sentitzen dutenean, gurasoen banaketak ematen direnean dolu gisara lantzeko orduan, familiako norbaiten heriotzarekin, ea....

Maila terapeutiko batean lan egitean, hurrei orientabide eta klabeak eskaintzen zaizkie euren barne munduan garatzen jarraitzeko eta euren kabuz egoera ezberdinak bideratzen lagunduaz. Bihotzarekin kontaktatzen erakusten denean, hurrek askoz ere intuizio gehiago izan ohi dute eta honen bidez, edozein egoera nola bideratu askoz errazago ikusi ohi dute.

Hortaz, alderdi guzti hauek kontuan izanda, hurrengo lan hauek eramango genituzke aurrera Unibertsitatearen esparruan:

1. Ikasgai ezberdinetan ipuinak landu: Geografia eta Historia, Natur Zientzien Didaktika, Soziologia eta Pedagogia, Matematika, eta espezialitate ezberdinetan: Ingelera, Musika, Gorputz Heziketa.

Bertan, liburu ezberdinak ezagutuko dira, ikasgai bakoitzari loturikoak hain zuzen ere, eta balore zein emozio ezberdinak lantzen ikasiko da.

Esate baterako, emigrazioa, dolua, beste erreinuekiko errespetua eta zaintza (zuhaitzak, harriak, animaliak, ...), osasunaren zainketa, maitasuna, gudak eta bakea, beldurra gauari edo iluntasunari, musikaren eragina emozio ezberdinak bizitzeko, ea... luze bat.

2. Literaturaren eta Hizkuntzaren Didaktikan ipuinak landu:

- ahotsa landu: azentuak, entonazioa, etenak (isilunee asko adierazten dute), ...
- baliabide linguistikoak: erritmoa, bokalizazioak, tonua, ...
- ipuinak sortu banaka nahiz taldean.
- baliabide extralinguistikoak: kinesikoak (keinu-imintzioak), proxemikoak (jarrera, distantzia)
- emozio ezberdinen inguruko lana egin: emozioak definizioak ongi ezagutu eta hurrek ipuinen bidez nola bizitzen eta lantzen dituzten ikusi.
- munduko ipuinak landu, bost kontinenteetakoak.

- transbertsalitatea landu.

3. Antzerki saioak ikusiko dira, antzerkiaren bidez hurrek bizitzen dituzten eguneroko bizipenak ikusteko eta ulertzeko. "Baketik" bezalako antzerki taldeak gonbidatuko dira lan honetarako. Lan hau irakasle izaten prestatzeko oso garrantzitsua izango da.

4. Psikologiari eta Pedagogiari loturik dauden ikasgaietan eztabaida saioak egingen dira, Gradu ikasleei emozioekin eta egoera ezberdinen aurrean nola jokatu sentitzeko eta ikusteko, denon artean irtenbide eta aukerak ikusteko.

Era berean, familiekin bizitzen diren ohiko egoerak ere aztertuko dira, gero ikastetxeetan lan egiterakoan ikasleak jakin dezan zer nolako lana egin behar den familiekin, ikasleekin, orientatzaile eta Pedagogia Terapeutikoarekin, ...

5. Arazoen konponketa oinarritzat hartuz tailerrak egingen dira bai haur eta baita irakasle eta familien aldetik eman ohi diren gatazkak bideratzen jakiteko.

## **4.2 Ikastetxea: irakasleak, ikasleak eta gurasoak**

Atal hau bi zatitan banatuko dugu, batetik irakasleei dagokiena eta bestetik ikasleei dagokiena. Bertan bakoitzarekin zer landuko den ikusiko dugu, ze jarduera eramango ditugun aurrera eta zein izango den guztia aurrera eramateko modua.

### **4.2.1. Irakasleak:**

Lehenik eta behin, ikasturte hasieran, irakasleek tailer bat egitea ipuinen inguruan. Bertan azalpen teorikoak egonen dira baina bereziki alde praktikoa landuko dute, hau da, ahotsaren erabilera, balore eta emozioak lantzeko ipuinen zerrendak begiratu, ipuinak aztertu, ikasgeletan eman ohi diren egoera ezberdin anitzei buruz hitz egin (gurasoen banaketak, dolua, haserrea, erruduntasuna, bazterketak, isekak, ea, ...) eta egoera horietarako liburu zerrenda eta liburuak prest eduki. Horretarako ikastetxeko liburutegia erabil dezakegu edota mailaka edo zikloka antolatu ipuin hauek.

Hona hemen zerrenda zabal bat:

- adopzioa:

- 1) Lewis, Rose. *Te quiero, niña bonita*. Serres, 2002
- 2) Miro, Asha. *Los cuatro viajeros*. Beascoa, 2003
- 3) Posadas, Carmen. *Kiwi*. SM, 1999
- 4) Salames, Jordi. *Yuyuba*. Destino, 2000

- maitasuna:

- 1) Grimm anaiak. *Maiteminduak*. Erein, 2000
- 2) Linazasoro, K. *Bota gorriak*. Anaya, 2000
- 3) McBratney, S. *Adivina cuánto te quiero*. Kókinos, 2001
- 4) Moost, N. *Yo te tengo a ti y tú me tienes a mí*. SM, 2002
- 5) Nanclares, S. *La Siesta*. Kókinos, 2001
- 6) Wilkon, P. *Maitasun istorio bat*. Hiria, 2003

-aniztasuna, onarpena

1. Bodecker, M.N. *Corre, corre, Mary, corre*. Lumen, 2001
2. Bogacki, T. *Gato y ratón*. SM, 1998
3. Browne, A. *Voces en el parque*. FCE, 1999

#### 4.2.2. Ikasleekin:

- “Emoziotegia” liburua aurkeztuko zaie eta emozioak izendatuko dira. Denen artean emozio horiei buruz hitz egingo dute, ezagutzen dituztenei buruz, ezagutzen ez direnei buruzko aurkezpen txiki bat eginez, ea.... Eta jarraian, zenbait saio egingen dira liburuarekin lan egiteko. Liburu hau Lehen Hezkuntzako 1. mailatik hasi eta Lehen Hezkuntzako 6. maila arte erabil daiteke. Bertan bereziki emozio bakoitza zer den eta noiz sentitzen den agertzen da eta bertan agertzen diren irudiekin ere lan itzela egin daiteke. Lan hau egiteko benetan beharrezkoa den denbora eskaintzea ezinbestekoa izanen da haurrei heziketa emozional sakon bat emateko eta euren eguneroko bizitzarako ate eder hau zabaltzeko.
- Haurrak taldeka jarriko dira, talde bakoitzak emozio bat aukeratuko du eta emozio hori azaltzeko antzerkitxo bat egingen dute. Ipuin motoreak landuko dira hemen, hau da, ipuinak mugimenduaren bidez adieraztea, euren gorputza, ahotsa, begiradak, mugimenduak, ea... erabiliz.
- Batetik, irakasleak balore eta emozioei buruzko galdera sorta bat eramanen du ikasgelara eta bestetik, haurrei ere galdetu egingen zaie ze emozioei buruz hitz egiteko beharra duten. Haurrek guzti hau nola bizitzen dituzten ikusteko eta eurei guzti honi buruz hitz egiteko espazioa eskaintzearren ere saio bat edo behar diren saioak eskainiko dira.
- Bullying-a, cyberbullying-a eta oro har maila ezberdinetako erasoen gaia lantzeko antzezpen saio txikiak egingen dira. Bertan, enpatia landu ahal izateko, tolerantzia eta errespetua lantzeko
- alderdi ezberdinak lantzeko filmak edo filmen zenbait zati konkretu ikusiko dira eta gero hauen inguruko eztabaida saioak egingen dira, eurei hitz egiteko eta adierazpena lantzeko espazioak eskainiz. Esate baterako generoa lantzeko “Agua”, familiaren gaia lantzeko “amama”, “A zer nolako heroiak” gatazka pertsonalak lantzeko, “Ballerina” itxaropena eta esfortzua lantzeko, “Coco” heriotza lantzeko, “Amelie” sentimenduak, erlazioak, elkartasuna,ea lantzeko, “Ana Luise eta Anton” laguntasuna lantzeko, ea...



- ipuin kontaketa saioak eginen dira astero eta beharren arabera. Hau LH 1.mailatik hasi eta LH 6.maila arte eginen da eta aniztasuna kontuan izanez, Pedagogoa Terapeutikoaren eta Orientatzailearen laguntzarekin egokitu egingo dira irakasleak euren ikasgeletako errealitatera..

Aipatu ere irakasleak emozio eta balore ezberdinei buruzko ipuin ezberdinak izanen ditu eta ikusten duenaren arabera aukeratuko ditu hurrei ipuinak kontatzeko gaiak. Ipuinak Euskaran zein Gazteleran kontatzeko erabiliko dira eta baita "Baloreak" ikasgaiaren ere. Bertan, dolua, enpatia, beldurrak, tristura, bazterketak, maitasuna, jelsia, elkartasuna, enpatia, haserrea, ea... bezalako gaiak landuko dira. Atal honetarako esate baterako hurrengo ipuin hauek erabil daitezke:

-dolua:

"Betiko", "El último canto", "Agur, amona!", "Hiltzen bazara, ikusiko duzu", "Norbait deika ari zait", "Nana vieja", "El cielo del cisne", "Adio,adio!", "Aitona joan egin da", "Itsasargia", "Rosa blanca", "La muerte pies ligeros".

-adopzioa:

"La historia de Ernesto", "Kiwi", "Te quiero, niña bonita", "Yuyuba", "Cuéntame otra vez la noche que nací", "Nuestra pelusa", "Los cuatro viajeros".

-dibortzioa, gurasoen banaketa:

"Papá ya no vive con nosotros", "Un papá a la medida", "Todo doble o cómo divorciarse con buen humor", "Etxe bitan bizi naiz, eta zer?", "Los padres de Sara se separan".

-haserrea:

"Cuentos y Leyendas del Antiguo Egipto", "Haserre nagoenean", "Amorru handia"

-maitasuna:

"MUA", "Nire ama", "Con todo mi corazón", "Para siempre", "Muxu lapurra", "Maiteminduak", "Bota gorriak", "Adivina cuánto te quiero", "Yo te tengo a ti y tú"

me tienes a mí”, “La Siesta”, “Maitasun istorio bat”.

-aniztasuna, onarpena:

“Gato y ratón”, “Voces en el parque”, “Completamente diferente”, “Juul”, “Sofía, la vaca que amaba la música”, “El pequeño títere”, “¿Qué hace un cocodrilo por la noche?”, “Tener amigos es divertido”, “Sorgin bat ikaragarri polita”, “Uluxka eta makaon”, “Uno y Siete”.

-gezurrak:

“Osaba Otso”, “¡CHAF!”

-hezkidetza:

“Norak suhiltzaile izan nahi du”, “Corre, corre, Mary”, “Karibeko ipuinak”.

-beldurrak:

“Cuentos y Leyendas de los indios de Chiapas”, “Onga Bonga”, “La máscara”.

-autoestimua, norberaren estimua

“Handia izan nahi dut”, “El pequeño conejo blanco”, “Juul”, “Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo”, “¡Zas Pum!”, “ El regalo” ,“La Galera”, “¿Qué hace un cocodrilo por la noche?”.

-lotsa:

“Willy el tímido.”, “¿Qué hace un cocodrilo por la noche?”, “Ostiraletako opila”.

-ongiaren eta gaizkiaren eraldaketa:

“Cuentos de la India”, “Cuentos de extremo Oriente”.

-Natura zaintzeko kontzientzia:

“Baratze ekologikoko bizitza”, “Iratiko ugaldean”.

-jelosia:

“Para siempre”, “ Mamá tiene una casa en la barriga”, “Jonasen iratzargailua” .

-dibortzioa, gurasoen banantzea

“Zelatan”, “Papá ya no vive con nosotros”, “Un papá a la medida”, “Los padres de Sara se separan”, “Etxe bitan bizi naiz, eta zer?”.

-elkartasuna, bakezaletasuna:

“La señora Marina y la gran ola”, “Flon-Flon y Musina”, “El ratón, el sapo y el cerdo”, “¿Por qué?”, “Uno y Siete”.

-tristura:

“Triste nagoenean”, “Un cuento triste no tan triste ”, “Lágrimas bajo la cama ”, “El patito Conchi ”.

- Ipuinak marrazki bidez adieraztea izanen da beste jardueretako bat. Sormenari ate guztiak irekiz, koloreen, formen eta irudien sormenaren munduan sartzeko aukera eskainiko zaie.
- Ipuinak idaztea ikasgelan eta guztion artean konpartitzeko ideiarekin. Elkarrekintza bultzatuko da, elkarrekiko errespetua, elkar ez epaitzea eta tolerantzia egon behar duela gauza ororen gainera.

#### 4.2.3. Gurasoekin:

Gurasoei dagokionean, maiz esaten dute ez dakitela nola landu euren haurren behar ezberdinak ipuinen bidez edota ez zaiela burutik pasatu ere egiten arazo edo zailtasunak lantzeko ipuinak erabiltzea tresna gisara.

Hortaz, eta gurasoekin elkarlanean aritzeko, Guraso Eskolen existentzia guztiz beharrezkoa izango litzateke lan hau aurrera eramateko. Azken finean, gurasoek ikastetxeekin komunikazio zuzen eta aberatsik ez badute, askoz ere zailagoa da haurren heziketa osasuntsua, aberatsa eta orekatua izatea. Arrazoi honengatik indarra eman zaio lotura eta komunikazio hau lantzeari.

Bestetik, oso garrantzitsua da ere kontuan izatea, etxean jokaera edo bizipen ezberdinak modu batetara bizitzen eta bideratzen badituzte eta aldiz ikastetxean, jokaera edo bizipen bera beste modu batetara bizitzen eta bideratzen bada, honek haurrari kalte handia egingen dio, haustura bat emanen da bere barruan. Azken finean, berarentzat, bi figura horiek dira erreferenteak eta bakoitzak modu bat duenean asko sufritu ohi dute haurrek zeren zalantzaren munduan barneratzen hasten dira, ez dakite nor den benetako erreferentea eta honekin min handia senti dezakete euren garapen orokorrean.

Askotan ikusten da haurrek lo egiteko arazoak izaten hasten direla edota esfinterren kontrola galtzen dutela; euren hitz egiteko modua aldatzen dela: helduen arreta deitzeko portaera aldatzen dutela eta guzti honekin, laburki esateko, azken finean laguntza eskatzen ari direla.

Guraso Eskolaren bidez antolatuko dira hurrengo jarduera hauek:

- balore eta emozioen inguruko ezagutza eta formakuntza jasotzeko ipuinei buruzko tailer bat egingen da ikasturte hasieran. Bertan, gurasoei heziketa bat eskaintzeko aukera eman nahi zaie gero euren etxeetan ere euren seme-alabekin lan egin dezaten eta eskolarekin egin beharreko koordinazio lanak orden bat eta norabide bera izan dezan. Hau oso garrantzitsua da zeren esate baterako, haurrek eskolan dolua naturaltasunez lantzen badute eta etxean tabu bat baldin bada, haurrari

nahasmena sortuko lioke honek. Aldiz bi alderdiek lan hau elkarrekin egitean haurrari txukuntasuna eskainiko zaio gai era beretsuan lantzean bai eskolan eta baita familian ere.

- gurasoen artean eta hilabetean bitan, hau da, hamabost egunetik behin, ipuin irakurketa saioak egingen dira eta gero ipuinak denen artean aztertuko dira. Espazio hau zalantzak argitzeko, hausnarketarako, adierazpenerako, ipuinak guraso, irakasle, Orientatzaile eta Pedagogo/a Terapeutikoaren artean kontatzeko, ea... izango da. Bertan, irakasleen presentziaz gain Pedagogo/a Terapeutikoaren eta Orientatzailearena ere izanen da eta euren laguntza jasoko da lan hau aurrera eramanez ahal izateko.
- Hilabetean behin, interes handia sortzen duten emozio eta baloreen inguruko ipuinen bati loturiko pelikula bat ikusiko da eta gero honen inguruko hausnarketa egingen da.
- Gurasoei ipuinak idazteko tailer txiki bat eskainiko zaie. Era honetara, gero eurek bakarka edota euren haurrekin idazteko aukera izan dezaten. Oso ederra izaten da ipuinak bakarka zein taldean sortzea, eta gisa honetara, haurrei ipuinen bidez arlo honi buruzko adierazpenak egiten laguntzen ahal zaie.
- Familiei, ikasgelara etortzea gonbidatuko zaie munduko ipuinak eta emozio, sentimendu eta baloreei buruzko ipuinak kontatzera.

### **4.3. Ebaluaketa**

Hau guztia aurrera eramateko erabiliko den ebaluaketa behaketa bidez izango da eta jarraian ikusten den guztia jaso egingo da idatziz, irakasleak haur bakoitzaren jarraipena egin ahal izateko. Modu honetara, une zehatz batean irakasleak laguntza izanez gero eta esate baterako orientatzaile edo Pedagogo Terapeutikoaregana jotzeko beharra izanez gero, bertan izango ditu haur bakoitzaren ibilbidearen datuak.

Haurren heziketan guztion parte-hartzea bultzatzea ere helburu nagusienetako bat denez, gainontzeko irakasleek momentu konkreturen batean behatu dezaketena ere irakasleen artean konpartituko da haurrari hobeto laguntzeko. Honek denon artean eta elkarri laguntzeko aukera ematen du beti eta hau guztiz beharrezkoa ikusten da hezkuntzaren bidean lan on bat egiteko.

### **4.4. Ikastetxe ezberdinei buruzko datuak**

Nafarroako lau ikastetxe publiko ezberdinei buruzko datuak jaso dira galdetegi baten bidez. Bertan, landa eremuko bi ikastetxeekin kontaktuan jarri eta inkesta bat egin zaie. Inkesta horretan zazpi galdera ezberdin agertu dira eta datu hauek grafiko batzuetan agertuko dira jarraian.

Galdetegiaren hasieran, irakasleei haurrei ipuinak ze maiztasunarekin irakurtzen dizkien galdetu zaie eta ea munduko ipuinak kontatzeko ohiturarik ba al duten. Gero balore, sentimendu eta emozio zehatzak lantzeko helburuarekin kontatzen al dizkieten ere eta jarraian sormenaren inguruko bi galdera: bata irakasleak berak ipuinak idazteko ohiturari buruz eta bestea haurrek ipuinak ipuinak idazteari buruz. Ondoren galdetu zaiena ea era honetako ipuinek zer nolako garrantzia duten irakasleentzat izan da eta amaitzeko ea familiak ikasgelara ipuinak kontatzera joateko ohiturarik ba al duten.

Bi ikastetxe landa eremukoak izan dira, bata A eredukoa, Abartzuzako Eskola Publikoa eta bestea D eredukoa, Azpilkuetako Eskola Publikoa. Bestetik, hiriko bi ikastetxe dira, A eredukoa García Galdeano Eskola Publikoa bata eta bestea D eredukoa Bernart Etxepare Eskola Publikoa. Bi eskoletan LH 1 eta LH 6 mailako irakasleei egin zaie galdetegia eta besteetan, Azpilkuetakoan esate baterako soilik LH 1ean ez dagoelako

LH6 ko talderik. Errealitate hau ikustea ere oso aberasgarria da, ikusteko egoera oso ezberdinetako eskolak daudela bereziki landa eremuan eta maiz gertatzen dela maila ezberdinak gela berean egotea. Honek, irakasleari ikasleekin guztiz lan pertsonalizatua egitera eskatzen dio eta aldi berean, oso aberasgarria izan daiteke bizipen eta ikaspen gisara.

Egindako galdetegiaren bidez, ipuinak ze puntutaraino erabiltzen dituzten ikusi nahi izan da eta ea heziketa emozional bat emateko erabiltzen al den edo ez. Era berean, sormen maila ere ikusi nahi izan da, bai irakaslearena eta baita ikaslearena ere. Azkenik, lan sakon hau familiekin uztartzen al duten ere ikusi da.

#### 4.4.1 "A" eta "D" ereduko ikastetxeak

Bi ikastetxe aukeratu dira, bata Orbinako García Galdeano eta bestea Txantreako Bernart Etxepare. Bernart Etxepare Ikastetxean berriz, LH 1ean hiru gela daude eta hiru irakasleen erantzunak jaso dira eta LH 6 mailan dauden bi geletako irakasleen erantzunak. A ereduko García Galdeanon Eskola Publikoan adibidez, LH 1ean talde bat dago eta LH 6an beste bat. Bertan besteetan ez bezala, ez da hain alde handia ikusi bi mailen artean ipuinak kontatzeko daukaten maiztasunari dagokionean zeren García Galdeanon LH 6an ipuinak lantzen omen dituzte ikasgelan eta bestean ere badute joera.

#### 4.4.2 Landa eremuko eta hiriko ikastetxeak:

Informazio bilketa bat egitearen ideiarekin, aukeratu den landa eremuko ikastetxe batean, Azpilkuetako Eskola Publikoan hain zuzen ere, LH 1eko irakasleak erantzundakoaren arabera ipuinak kontatzeko joera dago eta haurrek asko eskatzen omen dute. Beste alde batetik, Abartzuzako Eskola Publikoan bildutako emaitzen arabera eta kontuan hartuz hemen A ereduan LH 1eko talderik ez dagoela, LH 6n ez dutela hainbeste denbora hartzen ipuinak kontatzeko eta hemendik aurrera, eta galdetegi hau egitearen ondorioz, maiztasun gehiagorekin lantzen hasi behar zutela aipatu zuten.

Ikastetxe mota ezberdin hauek behatzearen arrazoi nagusiak, batetik hiri eta herriaren arteko ezberdintasuna ikustea da, hau da, ea eraginik baduen ipuinak kontatu, konpartitu eta lantzerako garaian, eta bestetik eredu ezberdinen arteko aldea ikustea, A eta D ereduaren arteko aldea hain zuzen ere.

-Inkesta eta emaitzak:

Emaitzei buruz, aipatu beharra dago argi ikusi den datu bat maila ezberdinen artean alde handia dagoela ipuinak kontatzerako orduan. LH 1en asko erabiltzen direla ikusten da baina LH 6rako, Bernart Etxeparen adibidez, joera hau asko galtzen dela. D ereduko ikastetxeei dagokionean, ondorioztatu dena da geroz eta maila altuagoak, geroz eta gutxiago erabiltzen direla ipuinak eta hortaz, ez direla hezitzeko tresna bezala erabiltzen. Arrazoi nagusia, curriculumeko edukiak eman beharra eta beti denboraz larri ibili ohi direla materia erakusteko. Hau dela eta, ez dutela denborarik izaten ipuinei dedikatzen.

Aldiz A ereduko Garcia Galdeano ikastetxean, apostu handi bat egiten dute literaturaren alorrean eta astero egiten dute idazmenari, ipuingintzari buruzko lana.

Jarraian grafikoen bidez datu ezberdin guzti hauek ikusiko dira.


Bestetik, oso garrantzitsua da ere jakitea munduko ipuinetara jotzeko joerarik badagoen edo ez, eta aukera hori erabiltzea oso lagungarria izan daitekeela haurren ezagutza eta garapenerako. Azken finean, kultura bakoitzak bere aberastasuna dauka eta honen erabilera guztiz ederra eta esanguratsua izan daiteke hurrei heziketa sakon eta integral bat eskaintzeko.

Familiei buruz, aipatu beharra dago lau ikastetxe hauetan ez dagoela inolako ohiturarik ikasgelara ipuinak kontatzera gonbidatzeko eta ez dutela kontaktu hau erabiltzen. Abartzuzako Eskola Publikoan, galdetegi hau egin ostean, aipatu zen orduantxe ohartu zirela zenbat denbora zeramaten familiak ipuinak kontatzera gonbidatu gabe eta une horretatik aurrera guzti hau aurrera eramaten hasiko zirela.


Amaitzeko, alderdi garrantzitsuenetako bat aipatuko da eta hau sormenarena da. Irakasleek ipuinak idazterako orduan sormenari eskeintzen dioten denbora ez dela existitzen ondorioztatu daiteke. Galdetegia egin zaien irakasle guztietatik soilik batek,




Azpilketakoak, aipatu zuen tarteka idazten dituela eta beste irakasle batek, García Galdeano LH 1ekoak, aspaldi idazten zituela baina egungo erritmoarekin ezin duela denborarik ere ipuinak idazteko eta modue honetara sartzeko sormenaren munduan. Hortaz, denboraren faktoreak duen garrantzia ere argi ikusten da irakaslearen lanari dagokionean.




1. figura (Hiriko eskola eta D eredu: Bernart Etxepare, LH 1)




2. figura (Hiriko eskola eta D eredu: Bernart Etxepare, LH 6)




3. figura (Hiriko eskola, A eredia: García Galdeano, LH1)



4. figura (Hiriko eskola, A eredia: García Galdeano, LH6)



5. figura (Landa eremuko eskola, A eredia: Abartzuza, LH6)



6. figura (Landa eremuko eskola, D eredia: Azpilkueta, LH1)



## ONDORIOAK ETA EZTABAIDA IREKIAK

Nire iritziz, Irakasletza Graduko ikasle bati gisa honetako alderdi teoriko eta praktikoko batek bere fruitutxoak ematen ahal dizkiola gero lanean hasteko ordurako. Azken finean, eta nire iritziz, era honetako lanak eta prestakuntzak egiteak fruituak ematen ahal ditu, lehenik eta behin, irakasle izateko prestatzen ari diren ikasleengandik hasi behar delako prozesu guztia.

Jarraian, eta haurrengan zentratuaz, haurrek ez dutela soilik ezagutza intelektual bat izan behar ikusten dut, baizik eta ezagutza zabal eta sakon bat, bereziki bizipenez josia, parte-hartzailea, aktiboa, hau da, maila anitzetan ematen dena. Hortaz, edonon, edonola, edonorekin gaudelarik, beti egonen denez emozio, sentimendu eta baloreen eragina, Gradu Amaierako Lanaren aukera eder hau erabiliko dut honen inguruan sakontzeko.

Esparru teorikoari eta praktikokoari buruz ondorio anitz atera ditudala esan behar dut. Honetarako, ikusten ditudan behar eta hutsuneetatik abiatu naiz, hau da, nik ikasle bezala Unibertsitatean ikusi ditudan hutsuneak nola osatu proposatuz eta praktiketan ikusi dudanaren arabera eta oro har, gizartea erreparatuz ikusten dudanarekin.

Ondorio honekin lotuta, emozioen mundua eta literatura ipuinen bidez aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa da irakasle izateko prestatzen ari diren ikasleek Unibertsitatean ikastea guzti hau. Nire ibilbidean ikusi dudanaren arabera, Unibertsitatean heziketa emozionala lantzeko dagoen beharra oso handia da. Praktiketan egon naizen aldietan ikusi dudana bezala ere eta nire eguneroko bizitzan ikusten dudanaren arabera, irakasleak oso galduta sentitzen dira arlo honetan lan egiteko orduan. Nire iritziz, ohartu behar gara emozio, sentimendu eta baloreak ez ditugula tarteka bakarrik bizitzen baizik eta egunero, uneoro. Hortaz, gizarte batek koherentea izan nahi badu bere hezkuntza sisteman proposatzen dituen helburuekin, hutsune guzti hauek betetzen joatea ezinbestekoa da.

Hemen, irakasleen lanari begira, ikastetxeetan benetako eredu ona emateak euren lan pertsonala egitea eskatuko du. Irakasle batek ezingo du inongo eredurik eman erakusten

duen hori ez badu ongi barneratua. Hau Rudolf Steiner, austriar hezitzaile, filosofo eta artistak aipatzen zuen bezala, lehenik eta behin, hezitzailearengan hasiko da benetako lana eta berarekin guztiz ados nago. Honetarako irakasle izateko barne hausnarketa sakonak egin beharko dira eta lan handia. Irakasle batek inoiz ezingo du eredu onik eman erakutsi behar duen hori ez badu integratua. Hau egin ondoren bai iritsiko dela guzti hori haurrengana. Hortaz, nik orain ikusten dudanaren arabera, esan dezakedana da irakasle izan nahi duen pertsona batek Unibertsitatez kanpoko formakuntza jaso beharko duela une honetan eta heziketa emozionalaren alorrean lan egiteko. Hutsune eta behar asko daude eta aldaketak eginez gero, hobekuntza handiak egin daitezke, zalantzarik gabe, eta nik horretarako itxaropen handia daukat.

Bestetik, eta irakasleen formazioari buruz hitz egin ostean, hurrengo oinarrizko pausoa haurren beharretatik abiatzea izango da, haurren, guraso eta familien errealitatetik abiatuta. Are gehiago egungo gizartean, non dena oso azkar aldatzen ari den, sare sozialen eragina geroz eta handiagoa den, familien osaketak geroz eta ezberdin eta anitzagoak diren eta guzti honek ekartzen dituen bizipen, sentimendu, emozio eta baloreak guztiz aldatzen ari diren etengabe.

Lan honen sarreran Alonso psikologoaren aipamenak dioten bezala, haurrei esate baterako ipuin bat kontatzeko heldu batek eskaintzen dion denbora hori behar du, zeren gizarte honetan orokorrean bizi dugun abiadurarekin, haurrek hutsune afektibo handiak baitituzte.

Horregatik, denak guztiz eguneratuak egotera eskatzen du haurrei heziketa emozional eta orokorrean heziketa on bat eskaintzeko. Irakasleak oso ongi ezagutu beharko ditu haurrek bizitzen dituzten ohiko egoerak eta honen inguruan lan egiteko tresnak lortu. Hau dela eta, nire iritziz, ipuinak dira tresna magikoenetako bat eta irakasleak honen inguruko prestakuntza izatea ezinbestekoa iruditzen zait Lehen Hezkuntzako maila guztietan lan egin ahal izateko. Gainera, geroz eta programa gehiago daude lan sakonago bat egiteko, Skolae esate baterako, IEP edo CAPEko formakuntzak, ea.

Honekin lotuta, Nafarroan jardunaldi jarraia duten 100 eskola baino gehiago daude eta denborarekin ikusten joanen gara, baina itxuraz, haur eta helduen artean denbora

gehiago igaroko da elkarrekin eta hau ongi bideratzen laguntzen bada, pauso ederrak eman daitezke egunerokotasunari begira. Hau oso berri ona izan daiteke denontzako, bereziki hain beharrezkoa den komunikazioa lantzeko. Hemen, ipuinak oso lagungarriak izan daitezke ere.

Heziketa emozionala ipuinen bidez lantzeak, haurrei kontzientzia emozionala sortarazten die. Emozio, sentimendu eta baloreak zer diren ezagutzen eta identifikatzen hasten dira, bakoitza bere erritmoan integratzen joanez eta ipuinak horretarako tresna bezala hartuaz. Ezagutza guzti hau izateak haurrei euren erregulazio emozionala lantzea erraztuko zaie eta guzti honek autonomia emozionala emanen die. Modu honetara, ikasten joanen dira nola kudeatu euren emozio eta sentimenduak, esate baterako haserrea, euforia, jelsia, ea... bezalako maiztasunez izaten dituzten bizipenak. Hau dena haurren geroari begira eta baita irakasteko modu honen bidez gizarte batentzako haurrengan jartzen diren haziei begira, konpetentzia sozialak ere landuko dira eta guzti honekin, alderdi hau oso eraldatzailea izan daiteke. Errespetua eta maitasuna oinarri direla irakasten bazaie eta hau barneratzen joaten diren heinean, maila sozialean argi eta garbi joango dira ikusten hobekuntzak eta joera on eta berriak.

Haurrengan ikasteko gogoia ez itzaltzea ere atera dudana beste ondorioetako bat da. Azken finean, curriculumari begiratu gero, oso garrantzitsua da derrigorrez erakutsi behar zaien materia era erakargarrian erakustea eta euren interesak ere behatzea. Ikastetxe batzuetan, haurrei eman behar zaien materia aurkezten zaie baina eman beharreko materia horri buruz aukeraketaren bat egiteko aukera dagoenean, haurrek duten motibazioa maila altua ikustea besterik ez dago. Horregatik, hau biz-bizirik mantentzea beharrezkoa izango da haurrei gogoz, ilusioz eta magiaz beterik ikasteko.

Honekin lotutako beste ondorioetako bat familia eta ikastetxearen arteko elkarlanaren garrantzia da. Haur batek aurkako eredu edo mezuak jasotzen dituen erreferentziatzat hartzen dituen figuren aldetik (eskolatutako haur batentzat, familia eta eskola izaten dira ia beti), desoreka besterik ez dio ekarriko zeren ez du jakingo bereizten zer dagoen ongi eta zer ez. Nire ustez, haurrek ereduak behar dituzte, mugen eta askatasunaren arteko oreka eskaintzea eta euren garapenean era honetara laguntzea.

Hortaz, behar-beharrezkoa izango da ikastetxearen eta familien arteko komunikazio eta harreman estua. Gainera hau izugarritzko aukera ederra izan daiteke familien eta irakasleen garapen pertsonalerako ere, zeren denon artean konpartitzeak ekartzen duen aberastasuna oso handia da beti. Erabat ikasi dezakegu besteen iritziak entzutean, besteen esperientziak jasotzean. Enpatizatzeo aukerak ematen ditu, hausnarketak egitekoa eta lehendik ez genekien zerbaiti buruz ikastekoa.

Egungo hezkuntza sistema, duela denbora askoko lan egiteko moduan oinarritzen dela ere ikusten dut, bereziki, ikasteko memorizazioa erabiltzean, eta pixkanaka geroz eta gehiago aldatzen ari dela ikusten dut irakasleen lan egiteko modua ikustean. Egun, haurrak asko kexatzen dira materia anitz buruz ikasi behar dutela esanez eta gero ez direla ia ezertaz oroitzen. Hau aldatzeko, material berriak sortzea, lan egiteko era berriak sortzea ezinbestekoa da; ikaskuntza esanguratsua eta kooperatiboa landuz, proiektuka lan eginez, bereziki.

PISAko datuen arabera, Europa mailan emaitza onenetakoak atera dituen lurralde bat Finlandia da. Honelako lurralde bateko hezkuntza sistemaren arrakasta nagusienetako batzuk irakasleak oso ongi prestaturiko profesionalak izatea da, haurrei ematen zaien hezkuntza pertsonalizatua izaten dela, ratioak hemen baino askoz baxuagoak direla, curriculumak ikastetxeak antolatu ohi duela nahiz eta ohikoa izan eta baita hezkuntza doakoa dela ere. Honetaz gain, ikasleek askoz ere denbora gehiago dute eurentzako eta gurasoek ere asko parte hartzen dute ikastetxean, ez zaie lehia sustatzen, ezta memorizazioaren bidez ikastea eta ezta zifren bidezko emaitzetan oinarritzea ere. Guzti hau aurrera eramateko duten moduagatik, zoriontasuna eta guztien parte hartzea benetan saritzen diren bi alderdi direla ere esan beharra dago eta honek sormena, elkarlana eta esperimentazioa bultzatzera eramaten duela.

Ildo honi jarraituz, aipatu nahiko nuke, herrialde bakoitza mundu bat dela eta oro har izaerak, pentsatzeko erak, joera ezberdinak, etab asko aldatzen direla. Horregatik, zaila da lurralde batean arrakasta duen hezkuntza sistema bat bere osotasunean beste lurralde batean ezartzea. Baina garrantzitsua da, are gehiago, ezinbestekoa, kalitate altuko hezkuntza sistema egokien bidez ikastea eta hauek erreferentziatzen hartzea beste edozein lurraldetako hezkuntza sistema hobetzeko. Ez du zentzurik ikaskuntza



prozesua atsegina ez izatea bultzatzen duten hezkuntza sistemak eredutzat hartzea, hala nola Koreako hezkuntza sistema bezala, non ikasleek egunero ikasten pasatu behar dituzten orduak 10 baino gehiago diren, memorizazioan oinarritu behar duten, erabat lehiakortasunaren bidez ikastea bultzatzen zaien eta ez duten ez jolasteko denborarik ere.

Hortaz, hemen eredu on eta aberasgarriak gure modura egokitu behar ditugula uste dut eta behingoz, hezkuntza sistema zerk hobetzen duen behatu eta horren inguruko aldaketak egiten hasi, haurrei euren garapenean oreka emozionala izaten laguntzeko.

Ikastetxe ezberdinei egin diedan galdeketari buruz ere ondorio batzuk atera ditut eta aipatu beharra dago oso aberatsa izan dela ikastetxe ezberdinetako irakasleekin izan dudana kontaktua eta eurengandik laguntza handia jaso dudala lan hau egiteko. Oso interesgarria iruditu zait irakasleekin kontaktuan jartzea eta gainera Irakasleak oso gogotsu ikusi ditut munduko ipuinak eta emozioen munduari buruz hitz egiteko eta euren bizipenak nirekin konpartitzeko.

Honekin, gai honi buruz hitz egiteko duten beharraz ohartu naiz eta era berean, orokorrean, sentipen eta baloreak ipuinen bidez lantzeko orduan informazioa gutxi dutela aipatu dute. Irakasle batzuk informazioa ere eskatu didate ipuinen inguruan eta galdetegi honen bidez, ipuinekin lan gehiago egin behar dutela ondorioztatu dute. Esate baterako, Abartzuzako Eskola Publikoan, galdetegi hau egin ostean, familiak ipuinak kontatzera joateko programazio bat martxan jartzea erabaki dute eta baita heziketa emozional bat ematen sakontzen hasteko ipuinak tresna gisara hartuz.

Oro har irakasleei gogo eta behar handia ikusi diet gai honi buruz hitz egiteko, azken finean, eta bereziki Lehen Hezkuntzako 3.zikloan, lanez gainezka baitaude eta askotan, ezin izaten omen dute denborarik atera emozio eta ipuinen arteko uztarketa egin eta alor honetan sakontzeko. Honela bada, ondorioztatzen dudana beste ideia bat hurrengoa hau da, askotan, eskoletan eman beharreko edukietan guztiz fokalizatuak egoteak, klaseak emateko modua errepikakorra edo mekanikoa egitea ekartzen duela eta bereziki, sentipenen munduak garrantzia galtzen duela.

Kontuan izan beharreko beste datu garrantzitsu bat hurrek haurdunaldian eta jaio ondoren maila emozionalean euren barruan grabatzen dituzten bizipenen eragina da eta gero guzti hau nola agertzen den ikastetxean daudenean, euren ikaskuntza prozesuetan.

Ingalaterrako hiriburuan, Londresko University of Imperial College-eko medikuntzako fakultatean honen inguruko ikerkuntza aitzindarietako bat egiten ari dira eta bertan, haur batek jaio aurretik eta jaio ondoren jaso behar dituen zainketari buruzkoa.

Emaitzen arabera, haurdunaldiak arlo honetan duen eragin itzel honekin, maila altu batean ados daude psikologo, obstetra, pediatra, neurologo, psikiatra, etab. Bertan ikerkuntza hau aurrera eramaten ari den taldeak ateratako emaitzen arabera, haurdunaldiko bizipen hauek haurrari bere bizitza osorako marka ezberdinak utziko dizkio eta horregatik, eskolan haur baten portaerak ulertzeko ere alderdi hau kontuan izan behar dela ondorioztatzen dut. Ikerkuntza hauen arabera, haur batek bere gestazioan gurasoen edo amaren aldetik estresa sentitzen badu, honek hiperaktibitatea ekar diezaioke gerora haur bati. Hortaz, haurra hobeto ulertzen laguntzen ahal digu eta ondoren, ikastetxeko espezialisten laguntza izateaz gain, irakasle bezala, haur horrekin lan egiteko tresnak erabiltzen. Horrela, irakasleak modu honetara lortuko duen ikaskuntza guztiak izugarritzko kalitatea emango dio hezkuntza sistema bati eta lehen baino lehen maila hori lortzera jo behar dugula ikusten dut gizarte hobeko bat sortzeko lan egin nahi badugu.

Hezkuntzaren alorrean lan egitea arduraz beteriko mundu batean murgiltzea da. Askotan esaten da irakasleen bizitza luxu bat dela; opor anitz izaten dituztelako, soldata ona, etab. Baina horrela pentsatzen bada, benetan zer nolako garrantzia ematen zaio hezkuntzan lan egiteak duen ardurari? Ardura hori maila guztietan dago, Unibertsitatean, eskoletan, familietan, kalean, Hezkuntza Departamentuetan, Hezkuntza eta Kultura Ministeritzetan, ea... Hortaz, guztiok dugu maila batean edo bestean izugarritzko ardura hezkuntza hobetzeko. Hau dela eta, sistema honen hobekuntzak gizarte osoarengan eragingo du eta hau beti era baikor batean ematea bilatu behar dugu benetan lurralde bateko gizarte hobetu nahi bada eta lurralde guztiekin lan hau egin nahi bada mundu hobeko bat sortzeko.

## CONCLUSIONES Y DEBATES ABIERTOS

En mi opinión, el aspecto teórico y práctico de un trabajo de este estilo podría darle sus frutos a una persona que está estudiando el Grado de Maestro. Después de todo, al hacer este tipo de trabajos y preparaciones, pienso que se pueden recoger diversos frutos porque todo el proceso se ha de iniciar en los estudiantes que se preparan para ser maestros.

A continuación, y centrándome en los niños, veo que no solo deben adquirir un conocimiento intelectual, sino un conocimiento amplio y profundo, especialmente a través de la experimentación, siendo atractivo, activo, es decir, multidisciplinario. Por lo tanto, dondequiera que vayamos, con cualquier persona, en cualquier lugar, siempre habrá un efecto de las emociones, los sentimientos y los valores, utilizaré esta gran oportunidad de realizar el Trabajo de Fin de Grado para profundizar en todo esto.

Debo decir que respecto al marco teórico y práctico, he llegado a muchas conclusiones. Para esto, he comenzado a partir de las necesidades y de las carencias que veo, es decir, desde cómo completar las carencias que he visto en la Universidad, de lo que he visto en las prácticas y, en general, de lo que observo de nuestra sociedad.

En relación a esta conclusión, para poder llevar a cabo el mundo de las emociones y de la literatura a través de los cuentos, es esencial que los estudiantes que se preparan para convertirse en maestros aprendan todo esta parte en la Universidad. Tal y como he visto en mi formación universitaria, la necesidad de recibir enseñanza sobre una educación emocional en la Universidad es muy grande. Por lo que he observado también en mis períodos de prácticas en diferentes escuelas, y tal y como veo en mi vida diaria, el maestro se siente muy perdido en este campo. En mi opinión, debemos darnos cuenta de que las emociones, los sentimientos y los valores no se viven de vez en cuando sino que en todo momento. Por lo tanto, si una sociedad desea ser coherente con los objetivos que propone en su sistema educativo, es esencial completar todas estas lagunas.

Según mencionaba Rudolf Steiner, educador, filósofo y artista austriaco, en primer lugar, el educador tendrá que comenzar el verdadero trabajo y luego todo esto llegará a los niños. En este punto, para llevar a cabo la labor de un maestro se requerirá un profundo trabajo personal de mucho autoanálisis y mucha labor. Estoy de acuerdo con que un maestro no podrá dar ningún ejemplo si lo que lo que va a enseñar no lo tiene integrado. Entonces, y tal y como puedo ver ahora, lo que puedo decir es que por lo que ese puede mejorar y por las carencias que hay en este momento en la Universidad a este respecto, una persona que quiere ser maestro y quiera trabajar con integridad y con coherencia, la formación sobre la educación emocional la debe recibir en otro contexto que no sea la Universidad. Hay muchos escollos y muchas necesidades, pero si se realizan los cambios, definitivamente se podrán hacer grandes mejoras, y personalmente tengo toda mucha esperanza.

Por otro lado, después de dialogar sobre la capacitación de los profesores, el siguiente paso básico será partir de las necesidades de los niños, de la realidad de los niños, de los padres y madres y de las familias. Aún más en la sociedad actual, donde todo está cambiando rápidamente, el efecto de las redes sociales está creciendo, La composición de las familias está cambiando constantemente y con todo ello, sus experiencias, sentimientos, emociones y valores son cada vez más diferentes y más diversos.

Tal y como dice el comentario del psicólogo Alonso en el inicio de este trabajo, un niño necesita que el adulto le dedique un tiempo para contarle un cuento por ejemplo, ya que con la velocidad con la que ese vive en general, los niños tienen muchas carencias afectivas. Por esta razón, es necesario estar completamente actualizado para en general, poder brindarles una buena educación y en base a la educación emocional. El maestro deberá conocer las situaciones típicas en las que viven los niños y obtener las herramientas para trabajar.

Para realizar toda esta labor, en mi opinión, los cuentos son una de las herramientas más mágicas, y la capacitación de los maestros para su buen uso es esencial para trabajar en todos los niveles de la Educación Primaria. Además. Cada vez se van viendo más programas para hacer un trabajo mas profundo, asi como Skolae, formaciones del CAP,etc.

Unido a todo esto, y ase ira viendo con el tiempo pero en Navarra ya hay mas de 100 Centros que ofrecen la jornada continúa, y puede que esto pueda hacer que los niños y as familias compartan mas tiempo. Si esto se gestiona bien, se pueden realizar hermosos avances. Esto podria ser una buena noticia para todos, especialmente para trabajar la comunicación que es tan necesaria hoy en dia.

La práctica de la educación emocional a través de cuentos crea una conciencia emocional en los niños. Comienzan a conocer e identificar las emociones, los sentimientos y los valores, cada uno integrandolo a su ritmo y así poder utilizar los cuentos como una herramienta para su desarrollo. Todo este conocimiento facilitará su regulación emocional , lo que les dará autonomía emocional. De esta manera, aprenderán cómo manejar sus emociones y sentimientos, como la ira, la euforia, los celos, etc. Si se les enseña con respeto y amor, y al sumergirse en este espacio, se verán claramente unas mejoras sociales y tendencias nuevas y buenas. Se trata de mirar el futuro e ir observando todo esto para su futuro, y a su vez, enseñar de esta forma a observar las semillas que se plantan en un niño para el futuro de una sociedad. Ésto hara que se desarrollen las competencias sociales, y ello puede ser muy transformador.

Otra de las otras conclusiones que también he sacado ha sido la de no apagar en los niños las ganas de estudiar y de aprender. Al final, basándose en lo que obligatoriamente hay que enseñarles según el currículum, la materia se ha de dar de forma atractiva y observando sus intereses.

En algunos centros de enseñanza, cuando la materia que tienen que aprender se les da pero ofreciéndoles la posibilidad de hacer alguna elección al respecto, el nivel de la motivación que obtienen es muy alto. Por eso, mantener viva esta parte será necesaria para que los niños disfruten estudiando y aprendan llenos de ilusión y de magia.

Una de las consecuencias de todo esto es la importancia de la colaboración entre las familias y las escuelas. Cuando un niño recibe patrones o mensajes contradictorios por parte de personas que para él son figuras referentes (para los niños escolarizados la familia y la escuela siempre son sus referencias), esto le provocará desequilibrios porque no sabrá qué es bueno y qué no.

En mi opinión, los niños necesitan orientación, proporcionarles un equilibrio entre los límites y la libertad, y de esta manera poder contribuir en su desarrollo. Por lo tanto, será totalmente necesaria la comunicación y la estrecha relación entre la escuela y las familias.

Además, esta puede ser una gran oportunidad para el desarrollo personal de las familias y los maestros, porque la riqueza de compartir entre todos es siempre un gran regalo. Podemos estudiar completamente las opiniones de los demás, cuando reciben las experiencias de otras personas. Ofrece oportunidades para la empatía, la reflexión y ni siquiera sabíamos sobre aprender algo.

Observo que el sistema educativo actual también se basa en la forma de trabajar que había hace mucho tiempo, especialmente cuando se trata de aprender a través de la memorización, pero muchos maestros están cambiando su forma de enseñar y trabajar en la enseñanza. Hoy en día, muchos niños se quejan de que tienen que aprender a base de memorizar mucha información y de que luego no se acuerdan de apenas nada. Así que para cambiarlo, es esencial crear nuevos materiales y crear nuevas formas de trabajar, utilizando un proyecto de aprendizaje significativo y cooperativo.

Según los datos de PISA, Finlandia tiene uno de los mejores resultados en Europa. Algunos de los principales éxitos en un sistema de educación en este país son que los maestros son profesionales bien capacitados, que a los niños se les brinda una educación personalizada, que los ratios son mucho más bajas, que aunque el plan de estudios está organizado por la escuela aunque hay uno que es común. Además de esto, los estudiantes tienen mucho más tiempo, sus padres participan mucho en la escuela, no se fomenta la competencia, el aprendizaje no es a través de la memorización o no se basa en cifras basadas en los resultados

Por la forma en que se hace esto, tanto la felicidad como la participación son realmente dos aspectos que son recompensados, lo que conduce al desarrollo y fomento de la creatividad, la colaboración y la experimentación.

De acuerdo con esta línea, me gustaría mencionar que cada país es un mundo, y en general su conexión con la naturaleza, su forma de pensar es muy diferente , sus

---

diferentes tendencias, etc. Por lo tanto, es difícil establecer en su conjunto un sistema de educación exitoso de un territorio en otro territorio. Pero es importante, incluso más importante, aprender a través de sistemas educativos de la más alta calidad y tomarlos como puntos de referencia para mejorar el sistema educativo en cualquier otro país. En la actualidad, la tecnología, los cambios políticos y socio-económicos, la cultura, etc están cambiando a gran velocidad, cambiando rápidamente las distintas realidades. Por ello, esto requiere mucha adaptación y consciencia a la hora de elegir hacia donde ir.

No tiene sentido basarse en los sistemas educativos que no fomentan el proceso de un aprendizaje significativo, como por ejemplo el sistema educativo coreano, donde los estudiantes pasan más de 10 horas de estudiando, se basan en la memorización, se les fomenta la competitividad por encima de todo y no tienen tiempo para jugar e interrelacionarse. Entonces, aquí creo que debemos adaptar nuestros buenos y enriquecedores modelos a nuestra propia forma de trabajar, y comenzar a ver cómo es el sistema educativo y hacer cambios en él para que podamos ayudar a los niños a tener un equilibrio emocional en su desarrollo.

También he sacado algunas conclusiones sobre los cuestionarios que he hecho en diferentes escuelas. Me gustaría decir que ha sido muy rico el contacto que he tenido con los maestros en diferentes escuelas y que me han ayudado mucho. Me pareció muy interesante la idea de ponerme en contacto con los profesores. Además, me ha entusiasmado mucho hablar sobre las emociones y sobre los cuentos del mundo, y que compartieran sus experiencias.

Con todo esto, sentí la necesidad que tiene de hablar sobre este tema y, en general, los profesores han mencionado el hecho de que tienen poca información sobre cómo trabajar y valorar los sentimientos, las emociones y los valores a través de los cuentos. Algunos profesores también me han pedido información acerca de los cuentos. Todos concluyeron expresando que deben trabajar más con este campo.

Por ejemplo, en la Escuela Pública de Abarzuza, después de completar este cuestionario, la escuela ha decidido comenzar un programa para contar cuentos y profundizar en la educación emocional utilizando los cuentos como herramienta.

En general, he visto mucho entusiasmo y necesidad a los maestros a la hora de hablar sobre este tema. Al fin y al cabo, y especialmente en el tercer ciclo de Educación Primaria, ya que están desbordados de trabajo y a menudo, no pueden obtener más tiempo para profundizar en el mundo de las emociones y de los cuentos. Y la otra idea o conclusión que obtengo es que a menudo, la forma de enseñar que se ve en las escuelas está completamente enfocada hacia el contenido, enseñando de una forma repetitiva o mecánica en las aulas, y sobre todo, que el mundo de las sensaciones y emocional pierde mucha importancia.

Otro aspecto importante que se debe tener en cuenta es la influencia de las experiencias que graban los niños durante todo el embarazo y después de nacer y ver cómo luego aparece todo esto en sus procesos de aprendizaje cuando están en la escuela.

En la capital británica, en la facultad de medicina de la University of Imperial College de Londres, se está realizando una investigación pionera sobre este tema, sobre el cuidado que necesitan los bebés antes y después de nacer.

De acuerdo con los resultados, con este gran impacto que tiene el efecto de los cuidados en el embarazo, psicólogos, obstetras, pediatras, neurólogos, psiquiatras, etc. están de acuerdo en un nivel muy alto con esta conclusión. Sobre la base de los resultados obtenidos por el grupo que está desarrollando esta investigación, estas experiencias del embarazo dejarán en un niño diferentes marcas para toda su vida y, por lo tanto, en mi opinión, este aspecto debe tenerse en cuenta para comprender su comportamiento en la escuela.

Según estas investigaciones, si un niño percibe estrés por parte de sus padres o su madre durante su gestación, posteriormente ese niño podrá ser un niño hiperactivo. Por lo tanto, nos ayuda a comprenderle mejor, y luego, con la ayuda de los especialistas de la escuela, como maestros poder utilizar herramientas para trabajar con ese niño. De esta manera, todo el aprendizaje que el maestro logrará de esta forma, dará mucha calidad a un sistema educativo y, deberíamos dirigirnos cuanto antes hacia ese nivel, si queremos trabajar para crear una mejor sociedad.



Trabajar en el campo de la educación es una cuestión de inmersión en un mundo lleno de responsabilidades. A menudo se dice que la vida de los maestros es un privilegio porque tienen muchas vacaciones, un buen salario, etc. Pero si esto es así, ¿realmente qué importancia se le da a la responsabilidad que tiene trabajar en el campo de la educación? Es obvio que esta responsabilidad está en todos los niveles; en la Universidad, en las escuelas, en las familias, en la calle, en los Departamentos de Educación, en los Ministerios de Educación y Cultura, etc. Entonces, todos tenemos un enorme grado de responsabilidad de una u otra forma. Por esta razón, la mejora de este sistema afectará a toda la sociedad, y siempre debemos buscarlo de manera positiva si realmente queremos mejorar la sociedad de un país, y si queremos trabajar con todos los países, y crear un mundo mejor.

## ERREFERENTZIAK

### Liburuak

Brasey, E. & Debailleul, J.P. (2003). *Vivir la magia de los cuentos*. Madril: Ed. Edaf

Barandiaran, J.M. (1979) *Ipuin harrigarriak I*. Zamudio-Bilbo: Ed.Proyección

Andolz, R. (1994). *Leyendas del Pirineo*. Huesca: Editorial Pirineo.

Etxabarrego Uskara Taldea (2004). *Supazterreko eleak: Aezkoa, Erroibar eta Luzaideko ipuinak, aspaldian adituak*. Iruñea: Nafar Gobernua.

Haraldson, L. (2006). *Cuentos y leyendas de los vikingos*. Madril: Ed.Anaya.

Léourier, C. (2004). *Cuentos y leyendas de la mitología celta*. Madril: Ed. Anaya

Pinguilly, Y. (2000). *Cuentos y Leyendas de África*. Barcelona: Ed. Espasa

Equipo Editorial (2015). *Mi primer libro de Mitología*. Madril: Ed.Libsa

Évano, B. (2006). *Cuentos y leyendas de la mitología celta*. Madril: Ed. Anaya

Equipo Editorial. (2008). *Mitología celta*. Madril: Ed.Libsa

Strausfeld, M. (2006). *Cuentos populares de Europa*. Madril: Ed. Siruela

Merleau-Ponty, C. (2009). *Cuentos y leyendas de los Maoríes*. Madril: Ed. Anaya

Philip, N. (2005). *Mitología Universal*. Madril: Ed.Edilupa

Elizagaray, A.M (1994). *Karibeko ipuinak*. Zornotza: Ibaizabal Argitaletxea

Rink, H. (1991). *Cuentos y leyendas de los esquimales*. Madril: Ed. Anaya.

- Keithahn, E.L. (1990). *Cuentos esquimales*. Palma de Mallorca: J.J. de Olañeta
- Metayer, M. (1982). *Cuentos esquimales*. Madril: Ed. Espasa-Calpe
- Lezea, J. (1992). *Sorginak eta itsasoa*. Bilbo: Troka edizioak.
- Rafael, L. (2010). *Cuentos y leyendas del Caribe*. Madril: Ed. Anaya.
- Azkue, R.M (2008). *Ipuiak*. Donostia: Ed. Hiria
- Condominas, B. (2014). *Cuentos y leyendas de los Indios de Chiapas*. Madril: Ed. Anaya
- Ibarrola, B. (2003). *Cuentos para sentir I: Educar las emociones (Padres y maestros)*. Madril: Ed.SM
- Ibarrola, B. (2003). *Cuentos para sentir II: Educar las emociones (Padres y maestros)*. Madril: Ed.SM
- Ibarrola, B. (2012). *Cuentos para aprender a convivir*. Madril: Ed. SM
- Ibarrola, B. (2010). *Cuentos para educar niños felices*. Madril: Ed. SM
- Ibarrola, B. (2012) *Zure da errua*. Donostia: Ed.Elkarlanean
- Ibarrola, B. (2012) *Ausarten kluba*. Donostia: Ed.Elkarlanean
- Ibarrola, B. (2012) *Zure da errua*. Donostia: Ed.Elkarlanean
- Delforge, H. (2018) *Mamá*. Alzira: Ed.Algar
- Gallego, P & Mendiguren, X. (2012) *Pobreak gara eta zer?* Donostia: Ed.Elkarlanean
- Calleja, S. (2000) *Potoloa naiz eta zer?* Donostia: Ed.Elkarlanean

Asociaciones Nacionales Miembros de IASWECE (2014) Para los niños del mundo. Madril: Ed. Rudolf Steiner

Giner, A.L. & Martinez, M. (2015). *Baratzte ekologikoko bizitza*. Ed. La fertilidad de la Tierra

Évano, B. (2006). *Cuentos y leyendas del Antiguo Egipto*. Madril: Ed. Anaya

Pinguilly, Y. (2000). *Cuentos y leyendas de África*. Madril: Ed. Anaya

Le Huche, M. (2018). *¿Miedo a la oscuridad? ¿Yo?* Barcelona: Ed. Kóninos

Pujol i Pons, E. & Arbat, C. & Bisquerra, R. (2018). *El gran libro de las emociones*. Barcelona: Ed. Parramón

Atxukarro, B; Zubialde, I & Egurza, A (2015). *Euskal Mitologia*. Berriozar: Ed. Denonartean.

Lage, J.J. (1988). *Psicoliteratura o libros de familia*. Barcelona: Ed. Fontalba.

Jadoul, E. (2015). *Kopetilun*. Donostia: Ed. Ttartalo.

Faraggi, A. (2009). *Cuentos y Leyendas de los Masai*. Barcelona: Ed. Kókinos.

Egile Batzuk (2006). *Cuentos del mundo. Cuentos de la India*. ([lekua. arg.](#))

Egile Batzuk (2006). *Cuentos del mundo. Cuentos del Extremo Oriente*. ([lekua. arg.](#))

Urra, A. (2018). *Irakasle lanbidea*. Iruñea: lan argitaragabea.

## Web orriak

Colomer, T. (XXXX ) Irakasletza Graduko Haur eta Gazte Literaturaren Didaktika ikasgaiko apunteak (XXXXXX)

Antón, A. (2016). Desigualdad social e injusticia.  
Eskuragarri: <http://sociologos.com/2016/02/24/desigualdad-social-e-injusticia/>

Alonso, J.Carlos (2017). Postdata  
[https://postdata.elkar.eus/wp-content/uploads/2017/09/Aldizkari\\_49-5.pdf](https://postdata.elkar.eus/wp-content/uploads/2017/09/Aldizkari_49-5.pdf)

Alonso, Eceiza, (2017). Postdata  
[https://postdata.elkar.eus/wp-content/uploads/2017/09/Aldizkari\\_49-5.pdf](https://postdata.elkar.eus/wp-content/uploads/2017/09/Aldizkari_49-5.pdf)

Larburu, (2017). Postdata  
[https://postdata.elkar.eus/wp-content/uploads/2017/09/Aldizkari\\_49-5.pdf](https://postdata.elkar.eus/wp-content/uploads/2017/09/Aldizkari_49-5.pdf)

El sistema educativo finlandés  
<https://youtu.be/-ZnCK77VGTw>

Ibarrola, Begoña ()  
<https://es.slideshare.net/psicologiaparacrece/educacion-emocional-a-travs-del-cuento-begoña-ibarrola>

Junta de Andalucía ()  
[https://educacionadistancia.juntadeandalucia.es/profesorado/pluginfile.php/40222/mod\\_folder/content/0/Pedro%20Gabo/educacion\\_emocional\\_traves\\_cuento.pdf?forcedownload=1](https://educacionadistancia.juntadeandalucia.es/profesorado/pluginfile.php/40222/mod_folder/content/0/Pedro%20Gabo/educacion_emocional_traves_cuento.pdf?forcedownload=1)

Redes 40: educación emocional desde el vientre materno.  
<https://youtu.be/RbCY43le1BI>

Redes: embarazo, emociones e  
hiperactividad. <https://www.youtube.com/watch?v=jdRWchAx9Vk&authuser=0>

Berria (2015)  
[https://www.berria.eus/paperekoa/1845/040/001/2015-09-15/ipuinak\\_bidaia\\_emozionalak\\_dira.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1845/040/001/2015-09-15/ipuinak_bidaia_emozionalak_dira.htm)

Heriotzaren Didakteka, (2014)

Oihana Zabaleta Juantorena

<https://heriotzarendidakteka.wordpress.com/2014/10/08/heriotza-lantzen-duten-ipuinak/>

“El camino a la Escuela”

<http://amzn.to/2x3A77P>

Aula planeta, (2015)

<http://www.aulaplaneta.com/2015/01/22/noticias-sobre-educacion/las-diez-claves-de-la-educacion-en-finlandia/>

Goleman, D. Inteligencia Emocional

<https://youtu.be/9cESqKVYPmk>

Eskola Kontseilua (2017)

<http://consejoescolar.educacion.navarra.es/web1/eu/2017/08/07/ikasketa-kooperatiboa/#>

Eskola Praktikak (2018-19). *Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduetako Praktiketako Gida Orokorra*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea.

<http://www.unavarra.es/fac-humanasysociales/practicas/maestros>

Ozeaniako ipuinak

<https://cuentosdelmundo.wordpress.com/category/oceania/>

Nafar Gobernu (2014) *Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Curriculum*.

2014ko 174. NAO, irailaren 5koa. [https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/DC9FD764-A71A-4920-851D-24BB2C653B6F/0/F1410295\\_LehenHezkuntzako.pdf](https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/DC9FD764-A71A-4920-851D-24BB2C653B6F/0/F1410295_LehenHezkuntzako.pdf)

Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua (2017) *Skolae programa*


<https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/programa-skolae>

## ERANSKINAK

-Lehen Hezkuntzako irakasleei egindako inkesta:

<b>1) Ze maiztasunarekin irakurtzen dizkiezu haurrei ipuinak?</b>				
Egunero	Astean 3 edo 4 aldiz	Astean 2 edo 3 aldiz	Astean behin	Inoiz
<b>2) Munduko ipuinak kontatzeko ohiturarik ba al duzu?</b>				
Erabat	Askotan	Tarteka	Gutxitan	Inoiz
<b>3) Balore zehatzak lantzeko helburuarekin kontatzen al dizkiezu ipuinak?</b>				
Erabat	Askotan	Tarteka	Gutxitan	Inoiz
<b>4) Ikasleek izaten al dute gelan ipuinak idazteko aukera?</b>				
Erabat	Askotan	Tarteka	Gutxitan	Inoiz
<b>5) Zuk idazten al dituzu ipuinak?</b>				
Erabat	Askotan	Tarteka	Gutxitan	Inoiz
<b>6) Zure eguneroko lanari begiratuta, garrantzitsua al da balore eta emozioak lantzeko ipuinak resna gisara erabiltzea?</b>				
Erabat	Askotan	Tarteka	Gutxitan	Inoiz
<b>7) Gonbidatzen al dituzue familiak ikasgelera ipuinak kontatzera?</b>				
Erabat	Askotan	Tarteka	Gutxitan	Inoiz

***“MUNDUKO IPUINAK ETA EMOZIOEN MUNDUA  
LEHEN HEZKUNTZAN”***



**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA

2018-2019

**EGILEA:** OIHANA ZABALETA JUANTORENA  
**TUTOREA:** JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA IRIARTE  
**IKASTURTEA:** 2018-2019